Cáritas
Bizkaia

Ribera 8 • 48005 Bilbao
Tel. 94 402 00 99
Fax 94 402 00 98
caritasbi@caritasbi.org
www.caritasbi.org

# ikusbideak

nº3 • OCTUBRE 2008 URRIA



Cáritas
Bizkaia

## Gizarte-ekintzan parte hartzea
Fernando Vidal Fernández

## La participación en la Acción Social
Fernando Vidal Fernández

1. argitalpena: 2008ko urria
Argitaratzailea: Caritas Bizkaia Argitalpenak
Erribera, 8 - behea. 48005 - Bilbo
Diseinu eta maketazioa: ekai
Itzulpena: Luis Mª Larruzea Murga

1ª edición: octubre 2008.
Edita: Cáritas Bizkaia Publicaciones
Ribera, 8 - bajo - 48005 Bilbao
Diseño y maquetación: ekai
Traducción: Luis Mª Larruzea Murga

Laguntzailea: Colabora:

bbk

# aurkibidea
# índice

**0.** Gizarte-ekintzan parte hartzea
Topaki Euskadiko Cáritas, Donostia, 2008ko urtarrilaren 12a
La participación en la Acción Social
Topaki Cáritas-Euskadi, Donostia, 12 de enero de 2007

**1.** Lehenengo zatia:
Parte-hartzearen sustraiak
Primera parte:
Las raíces de la participación

**2.** Bigarren zatia:
Parte-hartzea soziabilitatea eraberritzetik hasten da
Segunda parte:
La participación comienza por una reforma de la sociabilidad

**3.** Hirugarren atala:
Parte-hartzea gure garaiko dinamika bezala
Tercera parte:
La participación como dinámica de nuestra época

# Hitzaurrea

Ikusbideak-en hirugarren ale honetan, Fernando Vidalek Donostian egindako Topakiren 2008ko urtarrilako saioan eskaini zigun hitzaldia hurbiltzen dizuegu. Egun hartan parte hartzeko aukera izan genuenoi gure proiektuetan dauden pertsonen parte-hartzearen gaia ikuspuntu berri batetik begiratzeko aukera ezin hobea eman zigun. Fernandok ateren bat ireki zigun eta intuizio batzuk agerrarazi zizkigun, gure identitatearekin bat datorren eta aldi berean berria den ikuspegia aurkeztuz.

Textuak jatorrizko saioaren informalitatea eta hurbiltasuna errespetatzen ditu, jardunaldiaren ibilbidea eta giroa xedatu zituzten elementuen menzioa saihestu gabe, textuaren irakurketa hitzaldian parte hartzea bezalako esperientzia izan dadin saiatuz. Zuentzat baliagarria izan dadila espero dugu.

Cáritas Bizkaia
Argitalpenak



# Prólogo

En este tercer número de ikusbideak os acercamos la ponencia que Fernando Vidal nos ofreció en la sesión de Topaki celebrada en Donostia en enero de 2008. A quienes tuvimos la suerte de participar aquel día nos supuso una muy buena oportunidad para enfrentarnos al tema de la participación de las personas en los proyectos con una nueva mirada. Fernando nos abrió algunas puertas y desveló algunas intuiciones ofreciéndonos una visión muy cercana a nuestra identidad, pero al mismo tiempo nueva.

El texto respeta la informalidad y cercanía de la sesión sin evitar las menciones a elementos circunstanciales que marcaron el devenir de la jornada, tratando de hacer de la lectura una experiencia lo más cercana posible a la participación en la sesión. Esperamos que os sea provechosa.

Cáritas Bizkaia
Publicaciones

# 0. Gizarte-ekintzan parte hartzea

Topaki Euskadiko Cáritas, Donostia, 2008ko urtarrilaren 12a

# La participación en la Acción Social

Topaki Cáritas-Euskadi, Donosti, 12 de enero de 2007

Fernando Vidal Fernández[1]

Irakurleek eskuetan duten dokumentua ez da artikulu bat, 2008ko urtarrilaren 12an Donostian eman nuen hitzaldi baten testua baizik, Euskadiko Caritas-ek antolatutako Topaki foroan. Gogoeta egin nuen proposatutako gaiari buruz, "Erabiltzaileen parte-hartzea gizarte-ekintzako proiektuetan" gaiaz hain zuzen. Eta, nahiz balitekeen etorkizunean testu sistematizatuagoa izatea, eta ez hain lagunartekoa, baimena eman dut jatorrizko formulazioa banatu eta eskuratu ahal dadin. Beraz, irakurleak testu honetara hitzaldi batera bezala hurbildu beharko du, gai honetaz egindako zuzeneko gogoeta batera. Agintzen dizuet laster helduko diodala berriro gai honi, zabalago aritzeko asmoz.

(1) Fernando Vidal (Vigo, 1967) soziologian doktorea da, eta Madrileko Comillas Pontifize-Unibertsitateko Soziologia eta Gizarte-Laneko Departamentuko irakasle titularra da. RAIS eta FOESSA fundazioetako patronatokoa eta batzorde zientifikoko kidea ere bada, eta parte-hartze aktiboa du Espainiako Caritasen ikerketa-agendan. Bere azken liburuak hauek dira: "La exclusión social y el Estado de bienestar en España" (Icaria, Barcelona, 2006), "La religión y la integración social de los inmigrantes: la prueba del ángel" (Fundación Ceimigra, Valencia, 2006), "Voluntariado cívico: encuentro y alternativa" (Comunidad de Madrid, 2007), "Minorías de lo mayor: pluralismo religioso" (Icaria, Barcelona, 2007), "Encuesta de infancia en España" (Fundación SM, Madrid) eta, gaur egun, amaitzen ari da argitaratzaile moduan FOESSA Fundazioaren liburu hau: "La agenda de investigación en exclusión y desarrollo social", laster argitaratuko dena. Hau da bere posta elektronikoa: fvidal@chs.upcomillas.es

Fernando Vidal Fernández[1]

El documento que los lectores tienen entre manos no es un artículo sino el texto de una conferencia que pronuncié en Donosti el sábado 12 de enero de 2008, en el foro Topaki organizado por Cáritas-Euskadi. Aunque puede que en el futuro se convierta en un texto más sistematizado y menos coloquial, he accedido a que se pueda distribuir y disponer de la primera formulación original del tema sobre el que se me pidió que reflexionara, "La participación de los usuarios en los proyectos de acción social". Así pues, el lector deberá asomarse al texto como una conferencia, como una reflexión en vivo sobre la cuestión. Prometo retomar y ampliar este tema en un futuro próximo.

(1) Fernando Vidal (Vigo, 1967) es doctor en sociología y profesor titular del Departamento de Sociología y Trabajo Social de la Universidad Pontificia Comillas de Madrid. Patrono de la Fundación RAIS y de la Fundación FOESSA y miembro de su consejo científico, participa activamente en la agenda de investigación de Cáritas Española. Sus últimos libros son "La exclusión social y el Estado de bienestar en España" (Icaria, Barcelona, 2006), "La religión y la integración social de los inmigrantes: la prueba del ángel" (Fundación Ceimigra, Valencia, 2006), "Voluntariado cívico: encuentro y alternativa" (Comunidad de Madrid, 2007), "Minorías de lo mayor: pluralismo religioso" (Icaria, Barcelona, 2007), "Encuesta de infancia en España" (Fundación SM, Madrid) y actualmente está cerrando como editor el libro de la Fundación FOESSA, "La agenda de investigación en exclusión y desarrollo social", que se publicará próximamente. Su correo es fvidal@chs.upcomillas.es



Lagunok:

Biziki eskertzen dizuet larunbat honetan zuekin gogoeta egiteko egin didazuen gonbidapena. Gai hau nik uste dut demokrazia partizipatiboaren oinarrian dagoela, baita gizarte-ekintzako erakunde benetan eraldatzaileak sortzeko prozesuan ere. Era berean, eskertzekoa da zuekin egoteko data egokia bilatzean izan duzuen pazientzia. Eskerrik beroenak eman nahi dizkiet Pello eta Juanan Amunategiri, ni hemen egon ahal izateko beraien adeitasun eta atsegintasunagatik, eta Sergio Barcielari, Madriletik Topakira lagundu bainau.



Elkartzen gaituen gaia "Erabiltzaileen parte-hartzea gizarte-ekintzako proiektuetan" bezala definitu duzue, eta, nahiz eta batzuetan horretaz eztabaidatu dudan, ez dut inoiz horren gainean gogoeta sistematikorik egin. Sentitzen dut testu guztiz egina, neure proposamenekin, eman ez izana, baina semeari barea apurtu zaio duela zazpi egun, eta oraindik ospitalean dago. Arriskutik kanpo dagoenez, lasai nago. Hala ere, nekeak ez dit denborarik utzi lan zorrotz baterako. Baina, emaztearekin gaur parte hartzearen komenigarritasunaz hitz egin ondoren, zuekin egon nahi nuen, nire familiak eta nik neuk Caritasen gizarte- eta eliza-lanarekiko dugun begirunea adierazteko.

Queridos amigos:

Os agradezco mucho la invitación a reflexionar con vosotros en este sábado sobre una cuestión que creo que está en la base de la democracia participativa y de la creación de organizaciones de acción social realmente transformadoras. Quiero agradeceros vuestra paciencia para buscar una fecha en la que pudiera estar con vosotros. Quiero agradecer especialmente a Pello y a Juanan Amunategui sus atenciones y amabilidad para poder estar hoy aquí y a Sergio Barciela que me haya acompañado desde Madrid a este Topaki

El tema que nos reúne lo habéis formulado como "La participación de los usuarios en los proyectos de acción social" y os confieso que, aunque es una cuestión sobre la que he discutido en diversos momentos, no es algo sobre lo que me haya sentado a pensar sistemáticamente. Siento no haber facilitado un texto acabado con mis propuestas, pero mi hijo se ha roto el bazo hace siete días y todavía hoy está hospitalizado. Él está fuera de peligro, así que estoy tranquilo. No obstante, el cansancio no me ha dejado tiempo para un trabajo exhaustivo. Pero, tras pensar con mi mujer la conveniencia de participar hoy, quería estar con vosotros como reconocimiento del respeto y cariño que mi familia y yo mismo tenemos por el trabajo social y eclesial de Cáritas.



Esan dizuedanez, lehenengo hurbilketa sistematikoa egingo dut, baina badakit hau badagoela zenbait erakundetako agendetan. Duela gutxi, joan den azaroan, RAIS Fundaziotik gonbidapena egin zidaten Budapesten egitekoa zen Gizarte-Bazterketari buruzko topaketa batera joateko; bertan parte hartu zuten erakunde britainiar, frantses, hungariar eta espainiarrek erronka honi aurre egiten jarraitzeko gogoa adierazi zuten, eta FEANTSAk berak -dakigunez, etxerik gabekoak babesteko erakundea- hau jarri du 2009. urteko gogoeta-gaitzat. EAPN prozesu honetan egoteak aspektu honen inguruko kezkaren orokortasuna adierazten du. Kontuan hartu ditut eta baliagarriak izan zaizkit Topakin orain arte egin dituzuen dokumentuak.

Beraz, aitortu behar dugu hau erronketako bat dugula geure gizarte-ekintzako ereduaren bilakabidean, baita demokratizazioan ere, zeren eta, funtsean, gizarte-lanaren helburu nagusia gizarte-demokratizazioa baita, hiritarrak jabe egitea (ahalmena hartzea) elkartasun-komunitate batean. Gizarte-langileak, berez, demokratizatzaileak dira: jendeari bere bizitzaren gaineko boterea ematen diote.

Ciertamente os decía que voy a hacer una primera aproximación sistemática a la cuestión, pero soy consciente de que es algo que está ya presente en las agendas de distintas organizaciones. Recientemente, el pasado noviembre, me invitaron desde la Fundación RAIS a un encuentro en Budapest sobre Exclusión social y las distintas organizaciones británicas, francesas, húngaras y españolas que participaban mostraban su voluntad de avanzar en este desafío y la propia FEANTSA - dedicada, como sabemos, a personas sin hogar- ha puesto este tema como su objeto de reflexión para el próximo año 2009. La presencia de la EAPN en este proceso pone de manifiesto lo general que es la preocupación por este aspecto. Valoro y he aprendido de los documentos que habéis ido elaborando en el Topaki hasta el momento al respecto.

Así pues, tenemos que reconocer que en es uno de los retos que están ya en el horizonte del progreso de nuestro modelo de acción social y, diría, de democratización porque, en el fondo, el fin principal del trabajo social es la democratización social, empoderar a los ciudadanos en una comunidad de



Zuen baimenarekin, hasiko naiz zuen foroaren izenari erreparatzen, Topaki. Hitz honek elkartzeko tokia adierazten du. Galizieraz ere, "atoparnos" hitzak topaketa atsegina esan nahi du, elkar topatzea, egotea, bere zentzu trinkoan. "Topaki" hitza oso polita da eta, seguraski, aztertuko dudanaren gakoa da, erabiltzaileen parte-hartzeari dagokionez (jasotzaileak, parte-hartzaileak, onuradunak, etab.; izen hauek sortzen diguten ezinegonak berak adierazten du konpondu gabeko arazo bat dagoela). "Topaki" zuen foroaren izena da, baina lema moduan ere hartu ahal da, soziabilitate solidario, anitz eta sendoaren garrantzia adierazten duena, gizarte zibil irmoa eta, azken batean, komunitate politiko zuzena eratzeari begira.

"Topakiak" bultzatzea, desberdintasunak zatitutako soziabilitateak berregiteko lekuak sortzea, eman beharreko urratsa da, seguraski, erakundeek proiektuetan duten parte-hartzeari buruzko gogoeta egin aurretik.

solidaridad. Los trabajadores sociales son, esencialmente, democratizadores: dan poder a la gente sobre su propia vida.

Permitidme que comience mi intervención fijándome en el nombre del foro al que me habéis invitado: Topaki. Es una expresión vasca que significa lugar donde encontrarnos. También en gallego la palabra "atoparnos" la usamos con un significado de encuentro entrañable, de hallarse, de "estar" en el sentido denso de la palabra. "Topaki" es una palabra preciosa y posiblemente es la clave de todo lo que voy a analizar en relación a la participación de los usuarios (destinatarios, participantes, beneficiarios, etc. el propio malestar con que usamos las diferentes denominaciones señalan la existencia de un problema no resuelto). "Topaki" es el nombre de vuestro foro pero puede ser un lema que indique la importancia de la sociabilidad solidaria, plural, sólida, para la constitución de una sociedad civil consistente y, a fin de cuentas, una comunidad política justa.

Crear "topakis", lugares de encuentro, donde reconstruyamos las sociabilidades partidas por la desigualdad, es posiblemente el paso ante el que nos hallamos antes de preguntarnos por la participación institucional en los proyectos.

# 1. Lehenengo zatia: Parte-hartzearen sustraiak
## Primera parte: Las raíces de la participación

Gauzei buruz pentsatzean, beti hasten naiz sustraietatik. Gizarte-bazterketaren teoriaren argitan, parte-hartzea garrantzi handieneko dimentsio bezala agertzen da. Dakigunez, bazterketaren inguruko teoria guztiak oinarrian dituzten hiru teoriaren konbinaziotik datoz: kontzientziaren teoria, beharrena eta jabekuntzarena (ahalmena hartzea). Kontzientziaren teoriatik, parte-hartzea ezinbestekoa da, zeren eta norbera baita bere bizitzako gauzei zentzua aurkitzearen arduradun zuzena. Ez naiz tematuko gai konplexu honetan, luzatzeko emango lukeen arren; eta, azken batean, eramango gintuzke ikustera Egian parte hartzeko gaitasuna komunitate osoaren funtsezko gakoa dela. Laburki aritu nahi dut parte-hartzearen eginkizunaz, gizarte-bazterketari eusten dioten beste bi teorietan.

Beharren teoriak[2] lau printzipio ezartzen ditu: egon beharra, egin beharra, eduki beharra eta izan beharra. Beraien arteko harremanak ez dira piramidalak -lehengo paradigma materialistetan bezala-, sare-modukoak baizik -elkar erreklamatzen dute-.

Intento siempre comenzar a pensar las cosas desde su raíz. A la luz de la teoría de la exclusión social, la participación aparece como una dimensión de primera magnitud. Como sabemos, toda teoría de exclusión es el resultado de la combinación de tres teorías que la sostienen: una teoría de la conciencia, una teoría de las necesidades y una teoría del empoderamiento. Desde la teoría de la conciencia, la participación aparece como imprescindible pues cada uno es el último responsable de reconocer el sentido de las cosas en su vida. No voy a insistir en esta cuestión, que es compleja, aunque daría para bastante y, a fin de cuentas, nos llevaría a ver que realmente la capacidad de participación en la Verdad, es la clave crucial de toda la comunidad. Quiero fijarme brevemente en el papel de la participación en las otras dos teorías que sostienen la teoría de la exclusión social.

La teoría de las necesidades[2] establece cuatro principios que son la necesidad de estar, la necesidad de hacer, la necesidad de tener y la necesidad de ser.

(2) Teoria hau zehazki azaldu nuen "La exclusión social y el Estado de bienestar en España" liburuan, Icariak 2006an argitaratu zuena. Teoria hau berriro formulatzen, zabaltzen eta aplikatzen ari naiz, gizarte-ekintzaren inguruan, Espainiako Caritasentzat prestatzen ari naizen liburu batean -seguraski, FOESSA Fundazioak argitaratuko duena-, eta behin-behineko izena "Pan y rosas" da; hilabete batzuk barru entregatuko dut.

(2) Una exposición detallada de esta teoría la escribí en el libro "La exclusión social y el Estado de bienestar en España" que publicó Icaria en 2006 y estoy reformulando, ampliando y aplicando esa teoría a la intervención social en un libro que preparo para Cáritas Española -que previsiblemente publicaría la Fundación FOESSA- cuyo nombre provisional es "Pan y rosas" y entregaré los próximos meses.



Orain, aipamen generikoa baino ez dut egin nahi, honen garrantziaz kontura gaitezen. Egon beharraren barruan, nork bere bizitzari eutsi beharra dago, bizirauten, baina, hortik aparte, toki sozialetan egon beharra ere sartzen da, eta parte-hartzeari zentzua ematen dioten baldintzak, adibidez, hurbilekoak edo norberarena dena eskura izatea. Funtsezko behar honen errepresioa gizarte-bazterketaren hasiera da.

Konturatzen bagara, pobreziaren inguruan aplikatutako politikak ia beti izan dira egoteko politikak: biziraupena bermatzeko politikak -bizirik "egoten" jarraitu ahal zezaten- eta baztertutakoak non egon zitezkeen eta non ez kontrolatzeko politikak. Eskekotza, alderrai ibiltze, hiri -xurgapen eta abarren inguruko politikak -gogora ditzagun Madrileko UVAS izenekoak, Auzo-Xurgapenerako Unitateak-, etxebizitza jakin batzuetan sartzea, egoitzetan sartzea, aterpe-politikak, etab. egoteko politikak dira. Gaur egun, oraindik, gizarteratzeko politiketan nagusi izaten da presentzien kontrola.

Donostian egiten ari garen gogoetari begira, esan dezakegu erabiltzaileen parte-hartzea ulertzeko lehenengo modua presentziaren errespetua dela. Gizarte-proiektuetako zein aldi eta gunetan "egon" daitezke baztertutakoak? Noiz elkartzen gara beraiekin eta zein da beren egoteko



Entre ellas no se relacionan piramidalmente -como en los antiguos paradigmas materialistas- sino reticularmente -unas se reclaman a las otras-. Ahora solamente quiero hacer una mención genérica para tomar conciencia inicial de la importancia de lo que hablamos. La necesidad de estar incluye la necesidad de sostener la propia vida sobreviviendo, pero también incluye la necesidad de presencia en los diferentes lugares sociales y aquellas condiciones sin las cuales uno ve corrompida su presencia como es tener a mano a los suyos o lo suyo. Es una necesidad fundamental cuya represión es el origen de la exclusión social. Si nos fijamos, las políticas aplicadas en materia de pobreza casi siempre han sido políticas de presencia: políticas para garantizar la supervivencia -que pudieran seguir "estando" vivos- y políticas para controlar dónde podían y dónde no podían estar los excluidos. Las políticas de mendicidad, de vagabundeo, de absorción urbana -recordemos las UVAS de Madrid, las Unidades de Absorción Vecinal-, el realojamiento, el confinamiento en residencias, las políticas de albergues, etc. son políticas de presencia. Todavía hoy las políticas de inclusión están dominadas por el control de presencias.

De cara a la reflexión en este día en Donosti, podríamos afirmar que la primera forma de entender la participación de los usuarios es en forma

askatasuna? Edo, presentzia mugatua da, guk kontrolatua, zeren eta aginpidea baitugu erabakitzeko noiz hasiko eta noiz amaituko den beraien presentzia leku batean edo bestean?

Neuk erabakitzen dut elkarrizketa noiz hasiko eta noiz amaituko den, noiz joango naizen bere etxera eta noiz alde egingo dudan, zentroan noiz egon ahal den eta noiz ez; eta, aldi berean, berak ere askatasuna du nahi duenean alde egiteko -horrek izan ditzakeen ondorioekin bere prozesurako eta nik berarekin ditudan erakunde-harremanetarako.

Egia esan, beraiek egoteari parte-hartzea esaten diogu, egote horrek, borondatezkoa izateaz gain, erabakitzeko nolabaiteko ahalmena duenean, beraien egoteaz eta gureaz, gu denon egoteaz. Parte hartzea, bestearekin eta bestearentzat egoteko modu bat da. Kalitatea duen egoteari parte-hartzea esaten diogu. Elkartasuna maila goreneko parte-hartzea da. Baztertutakoekiko elkartasuna partehartze-erarik bikainena da.

Egon behar hau zehazten amaitzeko, nahi nuke kontura gintezen funtsezko beharra dela, ez dela gogoetazkoa, ez posesiboa, ez arauzkoa, existentziala baizik. Egotea ez da hasten gogoetaren ekimenetik, ez araututako eskubideenetik, ez boterea gauzatzearenetik, elkarren ondoan egotetik baizik, bata bestearekin jartzetik, bestearentzat jartzetik. Azken hamarkadan, Joaquín García Rocaren moduko ahalegin intelektualei esker, kontsolamendu eta erruki hitzek balioa berreskuratu dute, gizarte-lanaren munduari dagokionez -gizarte-ekintzari dagokionez, zeren eta oraingoz bereiztu gabe erabiliko baititut bi esamoldeok-. Biak, baina kon-

de respeto a la presencia. ¿En qué tiempos y espacios de los proyectos sociales pueden "estar" los excluidos? ¿Cuándo nos encontramos con ellos y qué libertad tienen de estar? ¿O es una presencia limitada y, sobre todo, controlada por nosotros que tenemos el dominio para decidir cuándo comienza y cuándo termina su presencia en tal o cual lugar.

Yo decido cuándo comienza y termina la entrevista, cuándo voy a su casa y cuándo me voy, cuándo puede estar y no en el centro y, a su vez, él también tiene libertad para irse cuando quiera -con las consecuencias que pueda tener para su proceso y para mi relación institucional con él.

En realidad, cuando a su presencia la denominamos participación es porque esa presencia, además de voluntaria, cuenta con cierto poder de decisión sobre su estar y el nuestro, sobre el estar del nosotros. Participar es una forma de estar con y para el otro. A la mayor calidad de presencia se la llama participación. La comunión es el modo mayor de participación. La comunión con los excluidos es la forma sublime de participación.

Para terminar de perfilar esta necesidad de estar, quiero que seamos conscientes de que es una necesidad fundamental, que no es discursiva, que no es posesiva, que no es normativa sino existencial. El estar no comienza por la iniciativa del discurso ni de los derechos reglamentados ni del ejercicio de poder sino por el estar unos junto a otros, por el ponerse uno con el otro, para el otro. En la última década esfuerzos intelectuales como el del maestro Joaquín García Roca han



tsolamendua bereziki, oso lotuta daude elkarren ondoan jartzeko funtsezko beharrarekin.

Normalean, lehentasuna ematen diogu bizirauteko beharrari *-jatea, edatea, arnasa hartzea-*, beharren artean lehen mailan jarriz. Dimentsio hau, giza-antropologiaren ikuspegi osoago eta integralago batetik, kontzepzio oso baten barruan sartu behar da: "egoteko" beharrezkoak diren baldintzak betetzen direneko kontzepzio batean. Biktimek nazien kontzentrazio-esparruetan bizi izandako esperientziek asko lagundu ziguten baloratzen bizirauteko beharraren barruan duintasun-baldintzak daudela, horiek gabe gizakia bera izaterik ezinezkoa delarik. Baldintza moralak, existentzialak, sentimenduzkoak eta elkartasunezkoak bizirauteko beharraren barru-barrukoak dira, eta zabaldu egiten dute, guk egoteko beharra edo presentzia deitu dugun horretan.

Beraz, parte-hartzea, lehenik eta behin, presentziaren kalitatea da, eta presentziez egiten den galdera edo, Boaventura dos Santos portugaldarraren absentzien soziologiaren ikuspegitik, absentziez egiten den galdera.

Era laburragoan arituko naiz beste beharrei buruz. Egin beharra da gauzak egin ahal izateko beharra, parte hartzekoa, egilea izatekoa. Zerikusi handia du politika sozial aktiboekin eta gizarte-ekintzako paradigma aktiboarekin, pertsonak eta komunitateak beren garapenaren egile nagusi izatea helburu duena. Doktrina hau oso barneratuta daukagu guk denok, eta bereziki baloratzen dugu, zeren eta fedea jartzen baitu lankide ditugun pertsona horiengan; doktrina honek duintasuna eta erantzukizuna aitortzen die, baita

recuperado el valor de la expresión consuelo y compasión para el mundo del trabajo social -de la acción social, por ahora emplearé indistintamente ambas expresiones-. Ambas, pero especialmente consuelo, hace referencia a esa necesidad fundamental de ponerse junto al otro.

Generalmente priorizamos la necesidad de sobrevivir -comer, beber, respirar- como la primera necesidad de todas. En una perspectiva más íntegra e integral de la antropología humana, "estar" incluye esa dimensión en una concepción que le da condiciones necesarias de la necesidad de estar. La experiencia del concentracionismo nazi que las víctimas atestiguaron nos ayudó mucho a valorar cómo sobrevivir es una necesidad que incluye condiciones de dignidad sin las cuales es inexcusable concebir al ser humano. Las condiciones morales, existenciales, sentimentales y solidarias son intrínsecas a la necesidad de supervivencia y la amplían en lo que nosotros hemos denominado necesidad de estar o de presencia.

La participación, por tanto, en primer lugar, es una calidad de presencia y es una pregunta por las presencias o, desde la mirada de la sociología de las ausencias del portugués Boaventura dos Santos, una pregunta por las ausencias.

Permitidme comentar más brevemente las otras necesidades. La necesidad de hacer es la necesidad que tenemos de poder hacer cosas, de participar, de tomar parte, de ser actor. Tiene mucho que ver con las políticas sociales activas y con el paradigma activo de intervención social que trata que las personas y comunidades sean actores principales de su propio desarrollo. Es esta una

gizarteari eta elkarri egingo dioten ekarpena ere. Parte hartzeko ere funtsezkoa da: parte hartzea egitea da, jardutea, mugitzea besteengana eta besteekin, "elkarrekin moldatzea", zentzu honetan: "lanera egokitzen ari naiz", bizimodu berri honetara moldatzen ari naiz, lagunekin moldatzen ari naiz. Berezkoak ditu presentzia eta jarduera irekia, besteekin jardutea. Orduan, parte-hartzea presentziaren kalitatea da, "besteekin moldatzea".

Gure proiektuen erabiltzaileen edo jasotzaileen parte-hartzeak esan nahi du egongo direla lehenago ez zeuden toki eta aldietan, edo, lehenago bazeuden askotan, kalitateko presentzia izango dutela. Eta honi lotuta dago "besteekin moldatu beharra", pasiboa edo erreprimitua dagoena aktibatu beharra, eta egitea ohitura bihurtzea, nork bere burua egitea eta elkar egitea.

Eduki beharra -loturak edukitzea, ondasunak, eskubideak- mundua geureganatzeko beharra da -ez geure jabetzakoa izatea, geurea egitea baizik, geure izena ematea-, guk bera eta berak gu edukitzeko beharra. Loturak, eskubideak eta ondasunak edukitzea parte hartzeko gako garrantzitsuak dira:



doctrina muy asimilada por todos nosotros y que especialmente valoramos por lo que supone de fe en las personas con las que trabajamos; por lo que supone de reconocimiento de su dignidad y de su responsabilidad; por lo que entendemos que tienen que aportar a la sociedad y a cada uno de nosotros mismos. Es crucial para la participación también: participar es hacer, es actuar, es moverse a y con otros, es "hacernos los unos a los otros" en el sentido con que digo "me estoy haciendo al trabajo", me estoy haciendo a este nuevo modo de vida, me voy haciendo a mis compañeros. Implica una presencia y una actividad de apertura, de acción con los otros. Bien, pues la participación es la calidad de presencia y es "hacerse a los otros".

La participación de los conocidos como usuarios o destinatarios de nuestros proyectos, implica su presencia en lugares y tiempos de los que estaban ausentes o su presencia con calidad en muchos en los que ya estaban. Y también implica un "hacerse a los otros", activar lo pasivo o lo reprimido y tomar la costumbre del hacer, hacerse y hacernos de los otros.

La necesidad de tener -tener vínculos, tener bienes, tener derechos- consiste en la necesidad de apropiarnos del mundo
-no poseerlo sino hacerlo propio, incorporarle nuestro nombre propio-, de tenerlo y que nos tenga. Tener vínculos, tener derechos y tener bienes son claves de participación importantes: participar es tomar parte, es tener a los otros. Cuando participas en algo, en ese algo te tienen a ti. Cuando tienes a alguien, sabes que puedes tirar de él para todo. La participación es tener a alguien en



parte-hartzea parte hartzea da, elkar edukitzea. Zerbaitetan parte hartzen duzunean, zerbait horretan zu zauzkate. Norbait daukazunean, badakizu berarengandik tira egin dezakezula denetarako. Partehartzea norbait kontuan hartzea da, norbait hori "edukitzea", komentatu dugun zentzu maitekor eta lagunkoi horretan.

Parte-hartzearen garrantzia argi agertzen da lehenengo hiru behar hauetan, eta gizatasunean sustraituta. Saihestea, duintasuna usteltzea da, eta hau kalitate moralerako txarra izateaz gain, gizarte-bazterketa larritu ere larritzen du. Erakunde bat parte-hartzean oinarritzen ez denean, subjektuen funtsezko beharrak kaltetzen ditu.

Nahi baino gehiago luzatu naizenez, labur arituko naiz hirugarren teoriaz; honetatik, interpretazio-sakontasuna eman nahi diot onuradunek gizarte-proiektuetan parte hartzearen gaiari. Jabekuntzaren (ahalmena ematearen) teoriak edo aktiboen teoriak funtsezko bost aktibo identifikatzen ditu: indarrak (osasuna eta erresilientzia), loturak, ondasunak, eskubideak eta kontakizunak. Parte-hartzea, batez ere, loturak aktibatzean datza, baina baita ere elkartrukatu edo eman daitezkeen ondasunak aktibatzean; eta, eskubideen aktibazioan, zeren eta hauek ahalbidetu egingo baitiote partehartzaileari leku eta prozesu jakinetan egon, jardun eta edukitzea. Ez dut hau garatuko, zeren eta denok ados baikaude parte-hartzea gakoa eta gako nagusia dela jabekuntza-prozesuan.

cuenta, es "tenerle" en ese sentido cordial y servicial que hemos comentado.

La importancia de la participación queda manifiesta en estas tres primeras necesidades y arraigada en el fondo de lo humano. Vemos que soslayarla es corromper la dignidad y eso no es solamente malo para la calidad moral de algo sino que agrava la exclusión social. Cuando una institución no es participativa lesiona las necesidades fundamentales de los sujetos.

Me he alargado más de lo que quería, así que seré breve en la tercera teoría desde la que pretendía darle profundidad interpretativa a la cuestión de la participación de los beneficiarios en los proyectos sociales. La teoría del empoderamiento o teoría de los activos, identifica cinco activos fundamentales: las fuerzas (salud y resiliencia), los vínculos, los bienes, los derechos y los relatos. Especialmente la participación se ubica en la activación de los vínculos, pero también en la activación de los bienes que uno puede intercambiar o donar, y en los derechos que le permiten estar, actuar y tener en determinados lugares y procesos. No voy a desarrollar esto porque todos estamos de acuerdo en que la participación no solamente es clave en el proceso de empoderamiento sino que es su clave principal.

# 2. Bigarren zatia. Parte-hartzea soziabilitatea eraberritzetik hasten da
## Segunda parte: La participación comienza por una reforma de la sociabilidad

Parte-hartzearen oinarrietan sakondu dugu eta beraien garrantziaz ohartu gara. Lehendik bagenekiena azalera atera dugu. Orain, zuzenago joko dut arazo honen izaerara. Horretarako, urrats batzuk atzera eman, eta goraki pentsatuko dut:

Zein funtsezkoa den ikusita, nola pentsa dezakegu batzuetan parte-hartzerik gabeko gizarte-ekintzarik izan daitekeenik? Zein unetan gertatu zen haustura, planteamendu oker hori posible egin zuena?

Konturatu behar dugu gure gizarte-ekintza baztertzaileen arlotik planteatzen dela; gure ekintza besteak ez dauden tokitik erbesteratuei zuzendutakoa da; eta, une honetan, beraiek ez dauden gune batean ari gara gogoeta egiten, nola hartu ahal duten parte komentatzen dugun bitartean. Kontraesan horregatik, bestearen partehartzeaz gogoeta egitea bestea tartean egon gabe, amildegira eror gaitezke. Onena da barneratzea gure mugimendua moralki markatutako zatiketa baten barruan gertatzen dela eta hortik jarduten dugula. Hau esaten dut posibilistak izan gaitezen eta, aldi berean, purismoaren ezkortasunean eror ez gaitezen, ezta inuzentearena egiten duen pragmatismoan ere.

Erakundeen eguneroko bizitzan, parte-hartzea "plus" bat izaten da, gure proiektuen kalitatea igoarazten duena, baina ikusi beharko genuke proiektuak hipotekatzen dituen "gabe" bat bezala, gure proiektuen jatorrizko bekatu bat bezala, zeren eta, beraietan, integratuen paradisutik egotzitakoak falta baitira.

Adibide bat. Boluntariotza. Ez da plus bat, baizik eta gizartea bera da (pertsonen bidez), berak sortutako zatiketaren ondoriozko biktimekin aurkitzeko ahaleginean. Boluntariotza ez da etorkizunera bideratzen den eranskin bat, jatorrizko zatiketara itzultzea baizik; zure baztertzaile-izaerako arkeologiarekin (zentzu aktibo edo pasiboan, baina beti onura atereaz) topatzea da.

Parte-hartzeari eta proiektuei buruz aritzean, kontraesanen batekin aurkitzen gara. Proiektuaz aritzean etorkizuna adierazten dugu, proiekzioa, aurrerapena, aurrerako eragina... Hala ere, parte-hartzeaz aritzean, lehenagokoaz ari gara, subjektuaz, jatorriaz, galdutako unitateaz.

Onuradunek gure proiektuetan parte hartzea ez da ez "plus" bat ez "pro" bat, "pre" bat baizik, lehenagoko zerbait, gure asmorik onenak baldintzatzen dituena.

Egia esan, boluntariotza gehien interesatu zaizkidan fenomenoetakoa da, zeren eta hortxe planteatzen baitira, zabalen eta argien, gizarte-ekintzaren

Bien, hemos cavado en los fundamentos de la cuestión de la participación y hemos apreciado su importancia. Todos éramos conscientes de ella, pero este primer tiempo nos ha hecho a todos presentes esa relevancia. Quiero ahora dirigirme más directamente a la naturaleza del problema planteado. Para ello doy unos pasos atrás y pienso en alto:

Viendo lo fundamental que es, ¿cómo es que podemos a veces plantearnos que pueda existir acción social sin participación? ¿En qué momento se produjo la rotura de la participación de modo que pudimos hacernos un planteamiento divorciado?

Debemos tomar conciencia de que nuestra acción social se inscribe en el campo de los exclusores, es una acción desde el lugar-sin-otros hacia los exiliados y desde ahí estamos pensando ahora en un espacio del que ellos mismos están ausentes mientras hablamos de cómo pueden participar. Esa contradicción de estar deliberando sobre cómo el otro puede participar sin que participe en esa deliberación, puede hacernos entrar en barrena. Lo mejor es tomar conciencia firme de que nuestro movimiento sucede desde una escisión moralmente marcada y desde ahí actuamos. Digo esto para que seamos posibilistas y a la vez no cedamos al pesimismo del purismo ni a un pragmatismo que se haga el ingenuo.

En la vida cotidiana de las organizaciones, la participación se plantea generalmente como un "plus" que eleva la calidad de nuestros proyectos, pero habría que verla como un "sin" que los hipoteca, como un pecado original de nuestros proyectos de los que faltan los expulsados del paraíso de los integrados.

Un ejemplo. El voluntariado. No es un plus sino que es la sociedad encontrándose (a través de sus personas) con las víctimas de la división que ha producido. El voluntariado no es un añadido que se proyecta al futuro sino que es una remisión a una división original; es un encuentro con tu arqueología de exclusor (activo o pasivo, pero beneficiado por ella).

Participación y proyecto se encontrarían con cierta contradicción. El proyecto señala al futuro, a la proyección, al progreso, a la proacción, a lo pro. Sin embargo, la participación señalaría en primer lugar no a lo "pro" sino a lo "pre", al sujeto, al origen, a la unidad perdida.

La participación de los beneficiarios en nuestros proyectos no es un "plus" ni un "pro" sino un "pre" que embarga nuestras mejores intenciones.

La verdad es que el voluntariado es uno de los fenómenos que más me han



kontraesanak. Gizartean esku-hartzeko beste era batzuetan, erakundeen autojustifikaziorako diskurtso ugari daude, eta korapilatsuagoa da gauzak aztertzea. Baina, boluntariotzan, aurrez aurreko topatze-une bat dago boluntarioaren eta jasotzailearen artean, parte-hartzearen gaia oso ondo ikustea ahalbidetzen diguna. Zuen baimenarekin, arazoari heltzeko, laburki arituko naiz denon hurbilekoa den bide praktikotik eta, ondoren, iruzkinak beste arlo batzuetara zabalduko ditut.

Laburki bada ere, uste dut boluntarioen parte-hartzea fronte ezberdinetan agertzen dela eta tranpa batzuk dituela:

Boluntariotza gizartea kanalean irekitzea da, bereizita zegoen jendea elkartu ahal izateko, elkarri laguntzeari eta elkarrekin berradiskidetzeari begira.
Lehenengo tranpa, eginkizunak banatzea da. Auzo behartsu batean bizi den batek, normalean, "ez du boluntariotzarik egiten", baizik eta "auzokoak" ditu soilik. Baina, gizartean esku-hartzeko erakunde baten bidez egiten denean, boluntarioa, bere eginkizuna betez, "jaitsi" egiten da bazterketa-guneetara (edo, beraietan, utzi egiten dio gardena izateari, zeren



interesado porque es donde se plantea de forma más abierta y clara las contradicciones de la acción social. En otros modos de intervención social existe un gran cuerpo de discursos que autojustifican las instituciones y es más intrincado examinar las cosas. Pero en el voluntariado hay un momento de encuentro cara a cara entre voluntario y destinatario que permite ver muy bien la cuestión de la participación. Permitidme que para escalar el problema siga brevemente esa vía práctica que a todos nos es cercana y luego amplíe los comentarios a otros ámbitos.

Brevemente, entiendo que la participación en el voluntariado se presentan en varios frentes y tiene varias trampas:

El voluntariado es abrir la sociedad en canal para que gente que estaba separada pueda juntarse a ayudarse y reconciliarse.
Una primera trampa es la del reparto de papeles. Uno que vive en un barrio desfavorecido generalmente no "hace voluntariado" sino que simplemente tiene "vecinos". Pero al hacerlo a través de una institución de intervención social, uno se "abaja" a los campos de exclusión (o simplemente deja de ser transparente en ellos, porque no deja de estar en esos campos ejerciendo un papel de exclusor por acción, omisión o beneficio ilegítimo) con el papel de "voluntario". Al otro le queda el papel del que es ayudado, del que es destinatario o beneficiario.

Pero lo primero es que te has (re)encontrado con un hermano del que estabas separado. La primera nota es que es un hermano, un vecino, un prójimo. Y esto parece obvio pero es crucial porque generalmente organizamos toda la intervención social



eta gune horietan, azken batean, baztertzaile-eginkizuna betetzen du eginez, ez-eginez, edo onura ez-legitimoa atereaz. Besteari, lagundua izan behar denaren eginkizuna geratzen zaio, jasotzailearena, onuradunarena.

Baina, lehenengoa da berriro aurkitu zarela zuregandik bereizita zegoen anai-arrebarekin. Lehenengo oharra da anai-arreba, auzokoa, lagun hurkoa dela. Eta, hau agerikoa izan arren, funtsezkoa da, zeren eta normalean gizarte-ekintza osoa antolatzen baitugu, ez anai-arreba izatearen lehentasuneko baldintza horretatik, baizik eta boterearen jardueratik (ahal duena eta ezin duena, saltzen duena eta erosten duena, ematen duena eta jasotzen duena). "Erabiltzaile", "bezero", "jasotzaile", "onuradun", "partehartzaile", izenak erabiltzeak sortzen digun ezinegonak desajuste sakona dagoela adierazten du.

Anai-arreba izaera garrantzitsua da, hiritartasunaren oinarria baita. Lehenik eta behin, aurkitu egiten zara zure soziabilitatea alboratuta zeneukan horrekin, eta berreraiki egingo duzu (itzuli egiten zara jatorrizko batasun potentzialera, baina ez nostalgia eragiten duen inongo garai zaharretara). Komunitate politiko berri batean. Boluntarioek osatutako erakundeak ahalbidetzen duen erlazio berria -beraiek gizartean egin beharreko interbentzio kirurgikoa traumatikoa izaten delarik, ez artzain-ekintza- mikrokomunitate politiko bati dagokiona da, anai-arrebatasun eta hiritartasun berri baten mikroberreraikuntza. Hori handitu egin daiteke edo ez: besteak prozesuan duen partehartze-mailaren arabera.

Gure azterlanetan, ahalegindu egin gara boluntariotza-programaren

no desde esa condición primordial de hermano sino bajo la acción de poder (el que puede y el que no, el que vende y el que compra, el que da y el que toma). El malestar de los nombres del "usuario", cliente, destinatario, beneficiario, "participante", etc. indica el profundo desajuste.

Es importante esta condición de hermano porque es la base constitutiva de la ciudadanía. Lo primero es que te encuentras con otro respecto al cual tenías tu sociabilidad sesgada y vas a rehacerla ("re" en referencia a la remisión a la potencial unidad original, no por retroceso a ningún tiempo pasado del que haya nostalgia). En una nueva comunidad política. La nueva relación que la institución del voluntariado posibilita -con una intervención quirúrgica en la sociedad que generalmente es traumática, no una acción pastoril- es una microcomunidad política, una microrefundación de una hermandad y ciudadanía nueva. Eso puede ir a más o no: depende del grado de participación del otro en el proceso.

En nuestros estudios hemos insistido en resaltar la voluntariedad del "beneficiario" del programa de



“onuradunaren” boluntariotasuna nabarmentzen (zabal garatu dut Madrileko Erkidegoak argitaratutako “Encuentro y Alternativa” liburuan). Berak ere libreki onartzen du –beharrak baldintzatuta, normalean- norbaitek beraren bizitzan parte hartu dezala, norbait beraren etxean sartu dadila, beraren gauzetan, norbait normalean elefantea ontziteria-dendan bezala (edo dena ukituko duen begiluze baten moduan) sartu dadila.

Beraz, parte-hartzea jatorrizko komunitatea eta subjektu fundatzailea berreraikitzean sustraitzen da. Eta dinamika, batez ere, bestearekiko berradiskidetzea da, eta nor bere buruarekin, eta, elkarrekin, gizarterantz.

Gizarteko bazterkeriaz hitz egiten dugunean, gizarte-partehartzearen berradiskidetzeko paradigman sinesten dut: berriro eratu behar da lapurtutako duintasuna, eta konpondu egin behar da subjektuei kaltetu zaiena eta orain osorik parte hartzea oztopatzen diena.

Hain garrantzitsua da gai hau ezen sentitzen baitut ura eskuetatik daridala, ideia guztiei heldu ezin diedalarik.

Laburbilduz: boluntariotzaz ari garenean, ulertu behar dugu bi anai-arreba direla, boluntariotza deitutako erakunde-operazio baten baitan daudenak. Biek erakunde horren barruan jarduten dute, elkar aurkitzea ahalbidetu dien ontzi horretan. Arazoa da normalean ez ditugula bertan behera uzten "elkar berraurkitzea" ahalbidetu duten gizarte-rolak, eta boluntariotzaren inguruko kontzientzia faltsua erakusten duen diskurtsoa eratzen dugu.

Esan dezagun argi: boluntarioa izatea

voluntariado (lo he desarrollado con amplitud en el libro "Encuentro y Alternativa", publicado por la Comunidad de Madrid). También él acepta libremente -condicionado por la necesidad, generalmente- que alguien intervenga en su vida, que alguien se meta en su casa, en sus cosas, que se meta generalmente como elefante en cacharrería o como un curioso a tocarlo todo.

Así pues, la participación tiene su raíz en la reconstitución de la comunidad original, del sujeto fundante. Y la dinámica es sobre todo la reconciliación con el otro, con uno mismo y, juntos, hacia la sociedad.

Creo en un paradigma reconciliatorio de la participación social, cuando hablamos de exclusión social. En reconstituir la dignidad robada, incluso en ayudar a reparar lo dañado de los sujetos que les impide ahora participar plenamente.

Es tan importante esta cuestión que siento que el agua se me escapa de las manos sin poder coger todas las ideas.

Resumo: el voluntariado son dos hermanos y ciudadanos que se encuentran en el seno de una operación institucional llamada voluntariado. Los dos actúan dentro de esa institución, dentro de esa nave que ha posibilitado que se encuentren. El problema es que generalmente no dejamos los papeles sociales que han facilitado el "reencuentro" y montamos un discurso de falsa conciencia sobre lo que es el voluntariado.

A lo claro: el voluntariado es una coartada para poder reencontrarte con quien no querías o no sabías. Y es un



koartada bat da, nahi ez zenuen edo ez zenekien horrekin berraurkitu ahal izateko. Eta ez zara bakarrik bestearekin aurkitzen, zeure buruarekin ere aurkitzen zara, zeren eta, Hermann Cohen filosofo ezagunak argitu zuenez, "nia" bestearenganako arduraz eratzen baita. Besteaz ardura hartzea bide bakarra da nork bere bizitzan parte hartu ahal izateko. Eta, baztertutakoak, presentzia-politikek gure hiritik urrundutako eta deserriratutako "besteak" dira. (lur-gabetuak, Maria Zambranok esango lukeen moduan).

Bestearen parte-hartzea geuk kontrolatzen ditugun proiektuetan, gutako bakoitza osorik egoteko posibilitatea baino ez da. Bestela, barrua zulo handiz beteta dugula jardungo dugu: norberaren bizitzan ezin da parte hartu. Ez da besteari egiten zaion mesedea, baldintza bat baizik modu osoan bizi ahal izateko, bizitza-unitatea ahalbidetzeko baldintza.

Baina, bestearen parte-hartzea, bestearekin aurkitzea, askotan egoera ideala da. Parte hartzeko irrikatan dauden izaki puruen arteko topaketa baino, zauritutako izakien arteko topaketa izaten da, izaki hauek aurpegia

encuentro no solamente con el otro sino contigo mismo, porque, según desveló el conocido filósofo Hermann Cohen, el yo se constituye en la responsabilización por el otro. La responsabilización por el otro es la única vía para que uno mismo pueda participar en su propia vida. Y los excluidos son unos "otros" no solamente alejados sino des-terrados (y aterrados, como diría maría Zambrano) de nuestra ciudad por las políticas de presencia.

La participación del otro en los proyectos que controlamos no es sino la posibilidad de que cada uno de nosotros estemos enteros. Si no, actuamos con grandes agujeros en nosotros mismos: no es posible la participación de uno en la propia vida. No es un favor al otro sino es una condición para poder vivir de forma entera, condición para posibilitar la unidad de vida.

Pero la participación del otro, el encuentro con el otro, es muchas veces un estado ideal. No es el encuentro entre seres puros que ansían participar sino que es más bien el encuentro entre seres heridos que ocultan la cara bajo el ala.

Los deseos de encuentro con el otro en el voluntariado suele frustrarse porque



hegoaren azpian gordetzen dutelarik.

Boluntarioen artean izaten den bestearekin aurkitzeko gogoa zapuztu ohi da, bila gabiltzan pobrea aurkitzen ez dugulako: gizaki ona eta pairatzen duena, bere parte hartzeko gogoa zapuztuta daukana, eta hurbiltzen denaren ontasuna onartzen duena. Ia beti, bazterkeriak beraren bizi-testuinguruetako batzuk suntsitu ez ezik, izaera usteldu ere egin dio.

Oso ondo ikusten da neska-mutilekin. Proiektu bat diseinatzen duzu arriskupeko adoleszenteen inguruneetan, ideia aurrera ateratzen duzu erakundean, finantzazioa lortzen duzu, pertsonal gogotsua aurkitzen duzu, bitarteko guztiak dituzu eta garrantzitsuena falta duzu: neska-mutil batek ere ez du parte hartu nahi. Sistema barruan bueltaka, hainbeste hondatu diegu izaera, ez dutela mugitu nahi.

Eta, horrekin batera, patologia, laguntzera "hurbiltzen denarengan" ere badago: inposatu egiten ditu desegokiak diren prozedurak, moduak, etab.

Elkar ez-aurkitzea sortzen da, eta patologia moduan gauzatzen da: paternalismoa, despotismo ilustratua, etab.

Utzi iezadazue beste gai bati heltzen, nahiz eta jarraitu genezakeen problematika honen gune zentrala aztertzen, boluntariotzaren bidez. Nire tesiaren izena hau izan zen: "La sociedad civil asimétrica: clases sociales y asociacionismo". Bertan, eratzailearen gizarte-klasetik aztertu nituen elkarteak. Izugarriak ziren aldeak. Iruzkinen bat egingo dut zuen baimenarekin: elkarte burgesak homoklasalak dira (eta

no encontramos el tipo de pobre que buscamos: un hombre bueno y sufriente cuyos deseos de participar están frustrados y que acoge la bondad de quien se acerca. Casi siempre la exclusión no ha derruido solamente parte de sus contextos vitales sino que ha corrompido su carácter.

Se ve muy bien con los chavales. Diseñas un proyecto para intervenir en entornos de adolescentes en riesgo, sacas adelante la idea en la institución, logras la financiación, encuentras al personal entusiasmado, consigues todos los medios y te falta lo principal: ningún chaval quiere participar. Les hemos corroído tanto el carácter tras tantos tumbos por el sistema que no quieren moverse.

Y a la vez, la patología también está en "quien se acerca" a ayudar: impone procedimientos, modos, etc. que son inadecuados.

Se produce un desencuentro que acaba cuajando en patologías como el paternalismo, el despotismo ilustrado, etc.

Dejadme que salte a otra cuestión, aunque se podría seguir analizando muy el núcleo central de toda esta problemática a través del voluntariado. Mi tesis tuvo por título "La sociedad civil asimétrica: clases sociales y asociacionismo". En ella estudié las asociaciones según la clase social de quien las constituía. Las diferencias eran enormes. Permitidme algún comentario relativo a cómo las asociaciones burguesas son homoclasales (y las interclasales generalmente se segmentan en agrupaciones homoclasales), cómo capitalizan



klaseartekoak edo interklasalak normalean elkarte homoklasaletan zatitzen dira); kideak modu bereizlean kapitalizatzen dituzte; horrek eragin publiko ezberdina dakar berekin; eta, batez ere, moduak oso ezberdinak izaten dira. Eta, burgesek erresistentzia handia erakusten dute, oroimena, baliabideak, aintzatespena, erakunde-sare nagusiarekiko kidetasuna (enpresak, ikastetxeak, elizak, administrazioak, etab.), etab.

Askotan, erakunde burgesetan pobreek izaten zuten parte-hartzea testimoniala izaten zen, fetitxista, itxura-egite hutsa eta baita umilazioa ere. Ia beti, ohiz kanpokoa (pobreek biltzarretan beren esperientziak kontatzea). Elizaren erakunde-inguru hain klaseartekoa den honetan ere, zatiketak itzelak dira.

Badirudi arazoa ez dela dispositibo berriak garatzea, ezta logikak luzatzea ere, baizik eta apurtutako komunitateak berreratzea, pitzatutako soziabilitatea berregitea.

Parte-hartzearen erdigunea ez da ohiko eginkizun sozialak hedatzea, hautsitako soziabilitatea berreratzea baizik. Berreratu egin behar dira soziabilitate egiazkoak, beraiek bideratzen dituzten rol sozialak gainditzea ahalbidetzen dutenak.

Argi daude apurtutako soziabilitateen eta parte ez hartzearen ondorioak. Haustura bikoitza da: bazterketarena, eta "bergizarteratua" izateko prozesuan ezartzen zaiona, zeren eta prozesuak berekin baitakar rol sozial bat onartzea, estigma ekarriko diona, jabe egiten ez duena (ahalmena ematen ez diona), umetu eta patologizatzen duena. Hau da, arazoak galdu egiten du erronka-, gainditze- eta iraultza-zentzua, eta

diferencialmente a sus miembros, cómo eso significa una diferente incidencia pública y sobre todo cómo sus formas son muy distintas y las burguesas muestran una fuerte resistencia, memoria, recursos, reconocimiento, afinidad con el entramado institucional dominante (empresas, colegios, iglesias, administraciones, etc.), etc.

Muchas veces la participación de pobres en las instituciones burguesas era testimonial, fetichista, un puro simulacro cuando no una humillación. Casi siempre excepcional (el pobre llevado a congresos a que cuente su experiencia). Incluso en un ámbito institucional tan interclasista como la religión, las divisiones son tremendas.

Apunta de nuevo a que el problema no es el desarrollo de nuevos dispositivos ni la prolongación de las lógicas sino la reconstitución de las comunidades rotas, la reconstrucción de la sociabilidad rajada.

El núcleo de la participación no es la extensión de los papeles sociales establecidos sino la reconstitución de la sociabilidad fracturada. Es reconstituir sociabilidades que sean capaces -por auténticas- de superar los papeles sociales que las vehiculan.

Las consecuencias de esas sociabilidades rotas y de la no participación son claras. Es una doble fractura: la fractura de la exclusión y una fractura que se le impone en el proceso de ser "reintegrado", ya que el proceso implica la aceptación de un papel social por el que se estigmatiza, que no le empodera, que le infantiliza y patologiza. Es decir, que el problema deja de ser fuente de desafío, superación, revolución y es encauzado el proceso

prozesua domestikazio bidezko gizarteratze moduan eramaten da. Bazterkeriaren arazoaren basati-, bortitz-, mingarri-, ez-seguru-, kaltegarri-izaera domestikatu eta ezereztu egiten da, bestelako gizarte-partehartzerako sustraia izan zitekeen arren: parte hartzen duena baino, bere partea hartzen duena. Basatia -erbesteratua, barbaroa, tokietan ez dagoena, hirigunetik kanpokoa, zokoratua- otzandu, domestikatu, zibilizatu egiten dugu. Gatazka ez da eraberritzeko, iraultzeko, kualitatiboki aldatzeko iturria, gizarteratzeko lepoko bikoitza baizik.

Horrela, gizarte neomodernoa biztanleria osoa birmobilizatzen ari da (sustrai-gabetzen, beraren soziabilitatea neoliberalizatzen, indibidualizatzen, etab.), errazago erabili ahal izateko: bazterketa-prozesu bat da, irendutako gizarteratzera daramana. Baztertzean datza sistema nagusiari eusteko prozedura, gene iraultzailerik gabe gizarteratzeko.

Baina, ez nuke diagnostikoan edo sustraietan geratu nahi. Onartu egiten ditut horri aurre egiteko erari buruzko galderak.

Lehenengo kontua da, gakoa soziabilitate berria bada, lehentasuna eman beharko litzaiokeela soziabilitateari, topaketa pertsonal eta libreari, bakoitzaren rolen barruan, baina harago joanez, bestearen aurpegia eta ez bere rolak ikusiz.

Esperientzia bat. Boluntario aritu nintzen, urte batzuetan, San Joan Jainko-arenaren Ordena Ostalariak Madrilen duen ostatuan. Gogoeta sozial eta politikorako talde baten animatzailea nintzen, etxebizitzarik gabe eta muturreko bazterketan zeuden hogei

como una integración por domesticación. Lo salvaje -violento, doloroso, inseguro, pernicioso- del problema de la exclusión, que puede ser raíz de otro tipo de participación social que no tome parte sino que tome su parte, es anulado, es domesticado. El salvaje -el desterrado, el bárbaro, el que no está en los lugares, el de extrarradio, el proscrito- es domado, domesticado, civilizado. El conflicto no es fuente de innovación, revolución, cambio cualitativo, sino que es un doble collar para la integración.

De ese modo, la sociedad neomoderna está removilizando (desarraigando, neoliberalizando su sociabilidad, individualizando, etc.) a toda la población para poder manejarla más flexiblemente: es un proceso de exclusión para la reintegración castrada. El procedimiento para la conservación del sistema dominante es excluir para reintegrar sin los genes revolucionarios.

Pero no quisiera quedarme en el diagnóstico o en las raíces, sino que acepto las preguntas que instan a decir cómo hacerlo.

Una primera cuestión es que si la clave es una nueva sociabilidad, habría que priorizar la sociabilidad, el encuentro personal, libre, dentro de los papeles de cada uno pero yendo más allá: viendo el rostro del otro y no sus papeles.

Una experiencia. Realicé unos años de voluntariado en el albergue que la Orden Hospitalaria de San Juan de Dios tiene en Madrid. Animaba un grupo de reflexión social y política entre unas veinte personas sin hogar, en exclusión extrema. De forma imprudente, fui instando a una agenda de temas de primera línea de actualidad y temas de



bat pertsonaren artean. Zuhur jokatu gabe, aktualitate handikoak eta sakonak ziren gaiak ateratzeari ekin nion. Egia esan, porrota izan zen emaitza. Hiru hilabete horrela igarota, gabonen gaia atera nuen. Nire nahia zen kontsumoari eta horren inguruko gauzei buruzko iritzi kritikoa lantzea, baina elkarrizketa umezaroko gogorapenetara lerratu zen, igarotako gabonetara (Dickens-en Mr. Scrooge bisitatzen duen lehen mamua bezala). Bilera liluragarri horretan, mundu guztiak hartu zuen parte, zerbait kontatuz, eta, nik neuk ere, Galizian igarotako Gabonak kontatu nituen.

Gabon horietan nahiko pentsatu nuen bilera horretaz, eta gai-agenda aldatu genuen. Saiatu nintzen irakasle edo monitore-rola emango ez zidaten giza-komunitatea sortzen; komunitate horretan, denak eduki behar zuen izaera narratiboagoa, intuitiboagoa, igualita-rioagoa. Gauza askotaz hitz egin genuen, itxuraz errealitatearekin inolako loturarik ez zeukatenak: amak, seme-alabak, herria eta hiria, lanbideak, maisu-maistrak, etsaiak eta lagunak, lotsa eta heriotza, lehenengo jaunartzeak, automobilak, etab. Humus horren gainean, zenbait egunetan lortu genuen bazterkeriaz hitz egitea, gizarte-langileez, geroaz edo enpleguaz. Baina, zuhurtasun handiz.



Beno, anekdota honaino. Esan nahi dudan lehenengoa da lehentasuna eman behar zaiola aurrez aurreko topaketari. Aurpegien artekoa izan behar du topaketak -Emmanuel Levinasen

fondo. La verdad es que eran un fracaso. Tras un trimestre de fracasos, llegó la navidad y planteé el tema de las navidades. La verdad es que buscaba un juicio crítico sobre el consumo y esas cosas, pero el diálogo viró hacia los recuerdos de la infancia, hacia las navidades pasadas (como el primer fantasma que visita al Mr. Scrooge de Dickens). Fue una reunión deslumbrante, donde todo el mundo se volcó, donde conté mis navidades en Galicia y todo el mundo tuvo algo que contar.

Esas navidades pensé bastante en esa reunión y cambiamos la agenda de temas. Intenté crear una comunidad humana en la que no me pudieran dar el papel de profesor o de monitor sino que tuviera todo un carácter más narrativo, más igualitario, más intuitivo. Hablamos de un montón de cosas que no tenían en apariencia ninguna conexión con la realidad. Hablamos de las madres, de los hijos, del pueblo y la ciudad, de los oficios, de los maestros, de los enemi-gos y los amigos, de la vergüenza y de la muerte, de las primeras comuniones y de los automóviles, etc. Sobre ese humus, algunos días logramos hablar sobre la exclusión, sobre los trabajadores sociales, sobre el día de mañana o sobre el empleo. Pero con mucha prudencia.

Bueno, hasta aquí la anécdota. Lo primero que quisiera decir es que hay que priorizar el encuentro cara a cara, entre rostros -en el sentido de Emmanuel Levinas-, bajándonos las máscaras y saliendo de los despachos.

zentzuan-, mozorroak kenduz eta bulegoetatik atereaz.

Parte-hartzearen muskulatura ez dut uste posible denik soziabilitatearen hezur-egiturarik gabe. Soziabilitate librea funtsezkoa da parte-hartzea posible izan dadin.

Honi buruzko ideiak: mahaikidetasuna, mintza-taldeak, "topaketarako txokoa" (RAIS), "bulegoa kalean jartzea" RAIS, narrazio-taldeak sortzea, gaien inguruko taldeak sortzea, ezaugarri hauekin: "gizaki bakoitzak boto bat du", "gizaki bakoitzak kontakizun bat du", inork ez du bi boto edo bi kontakizun (besteen kontakizuna berriro kontatzen duena).

Dagoeneko, lau arazorekin egin dut topo.

**1. Berdintasunaren eta ez-inplikazio profesionalaren arazoa.**

Ez da gai erraza: nola garatu soziabilitate askatzailea, botere-rol sozialek baldintzatzen bazaituzte? Antolatzeko ahalmena duzu, eta besteak nahi dituen gauzak ere badituzu. Aldi berean, zuk erakunde-helburuak dituzu, eta besteak ahalmena du helburu horiek bete daitezen ahalbidetzeko, edo erakundea porrotera eraman dezake, baita lanak berak zentzua galtzera ere: bere ahultasunetik, besteak ere badu boterea zure gainean. Botere-erlazioa nola bihur daiteke botere-negoziazio hutsa ez den soziabilitatea?

Sakondu egin beharko genuke gizarte-laneko elkarrizketaren gaian. Hemen, modu irekian ikus daitezke arazo hauek. Egia esan, elkarrizketan antzeztu egiten dira rol sozialak: elkarrizketatua besteak berarengandik espero duenera moldatzen da, ez zapuzteko eta bilatzen dituen interesak eskuratzeko. Gizarte-langileak pobre otzana aurkitu nahi badu, bestea moldatu egiten da. Eskatzaileak uste badu elkarrizketa-egileak muturreko egoeran dagoen norbait aurkitu nahi duela, baliabideak ematea arrazoitzeko, aurkitu egingo du. Haurra aurrera ateratzeko baliabiderik eta lanik gabeko ama ezkongabea aurkitu nahi badu, ahaztu egingo du bikotekidearekin bizi dela, eta bere amamarekin, eta merkatu txikian lan egiten duela, eta bere burua aurkeztuko du laguntzak jasotzeko hautagai egoki bezala, hau da, legeriak eta erakunde-ideologiek egokitzat jotzen dutena betetzen duela erakutsiko du. Katolikoa izan behar bada, hala erakusten da, eta aktibo agertu behar bada, berdin.

Alderantziz ere gertatzen da. Erakundea modu erakargarrian aurkezten da onuradunaren aurrean, berarekin topatu nahi du, bere helburuak lortu ahal izateko: aktibazioa, kontsolamendua, etab. Oso argi ikusten da boluntarioen artean: boluntarioak bestearen gogokoa izan nahi du, baliagarria izan nahi du, eraginkorra, eta moldatu egiten da, bere ustez besteak nahi duen modukoa agertzeko.

Hau ez da bakarrik gertatzen gizarte-laneko elkarrizketetan; ikasketetan, irakasleekin ere gertatzen zitzaigun, nagusiekin lantokian, etab.

No creo que sea posible la musculatura de la participación sin la estructura ósea de la sociabilidad. Una sociabilidad libre es crucial para una participación posible. Ideas al respecto: la comensalidad, grupos de hablar, "el rincón del encuentro" (RAIS), "poner la oficina en la calle" (RAIS), crear grupos narrativos, grupos igualitarios con temáticas donde "cada hombre es un voto", "cada hombre, un relato", nadie tiene dos votos ni dos relatos (uno que sobrescribe el de los demás).

Me salen ya cuatro problemas al paso.

**1. El problema de la igualdad y de la no implicación profesional**

Es un tema complicado: cómo desarrollar una sociabilidad liberadora cuando estás mediado por papeles sociales de poder. Tú tienes poder de organización y tienes cosas que el otro quiere. A su vez, tú tienes una serie de objetivos institucionales y el otro tiene poder en el sentido que puede hacer que se cumplan esos objetivos o hacer que la institución fracase y hasta pierda sentido el propio trabajo: el otro también tiene desde su debilidad poder sobre ti. ¿Cómo una relación de poder puede convertirse en una sociabilidad que no se reduzca a una negociación de poderes?

Deberíamos profundizar en el fenómeno de la entrevista en el trabajo social. Permite reducir un fenómeno en el que se dan estos problemas de forma abierta. En realidad, vemos que en la entrevista se da un fingimiento de papeles sociales por el cual cada uno se ajusta a lo que el otro espera de sí para no frustrarle y lograr los intereses que busca. Si el trabajador social quiere encontrar un pobre sumiso, el otro se adapta. Si el peticionario cree que el entrevistador quiere encontrar alguien en situación extrema para justificar la concesión de recursos, lo hallará. Si quiere encontrarse una madre soltera sin recursos ni empleo para sacar a su hijo adelante, hará olvido de que vive con su pareja, con su abuela y que trabaja en un mercadillo y se presentará a la luz de lo que la legislación establece como necesario o las ideologías institucionales entienden como idóneo para ser ayudado. Si hay que ser católico se es y si hay que mostrarse activo, se hace.

Al revés también funciona. Hay una presentación de la institución que trata de gustar al beneficiario, que trata de encontrarse con él para lograr sus objetivos de activación, de consuelo, etc. Se ve muy bien en el voluntariado: el voluntario quiere agradar al otro, quiere ser útil, tener efecto, y se adecua para aparecer del modo que entiende que el otro quiere.

No es exclusivo de las entrevistas en trabajo social sino que también nos pasaba con los profesores en clase, con los jefes en el trabajo, etc.

Claramente nuestras relaciones son mediadas por poderes que son bidireccionalmente asimétricos: yo tengo poder sobre el otro y el otro sobre mí.



Argi dago noranzko biko botere asimetrikoek baldintzatzen dituztela gure harremanak: bai nik bai besteak, elkarren gaineko boterea dugu. Beharbada, bata materialistagoa da, eta bestea sinbolikoagoa (baina ez dakit zein den boteretsuagoa, baliabiderik gabe geratzen dena edo eginkizunen zentzua galtzen duena).

Baina, gure harreman guztietan dago boterearen baldintzapena, baita lagun artekoetan ere. Guk dugun erlazio sendoenaz arituko naiz: aita-ama izatea. Zaila da pentsatzea inork duenik botere handiagorik gurasoek seme-alaben gainean dutena baino. Eta, aldi berean, seme-alabek boterea dute gurasoen gainean, zapuztu egingo dituzte, poztu...: seme-alaben boterea oso handia da, gurasoak "salduta" daude seme-alabei dagokienez, gurasoak zaurigarriak dira harreman horietan. Ez da bakarrik dena ematen duzula, baizik eta garaituta zaudela.

Argi dago konponbidea ez dela seme-alaben laguna izatea: hau da, gurasoen rola lagun-taldekidearenarekin ordezkatzea. Baina, esan behar dugu soziabilitate askatzailea bai, egon behar dela: gurasoek erakutsi dezatela benetan zer sentitzen duten, azaldu ditzatela beren prozesu pertsonalak, beren frustrazioak, beren poz-iturriak, laguntza eskatu diezaietela, barkamena, etab. Azken hau, guraso eta seme-alaben arteko esperientziarik osoenetakoa da: gurasoek seme-alabei barkamena eskatzen dietenean.

Horrekin batera, esan behar da ez garela ari soziabilitate bigun batez: dena ez da izan behar permisibitatea eta bestearen gogokoa izatea; autoritatea eta mugak ere egon behar dira. Autoritatea ez da

Uno es más materialista y el otro más simbólico, quizás (pero no sé cuál es más poderoso, si el que se queda sin un recurso o el que pierde el sentido de lo que hace).

Pero todas nuestras relaciones están mediadas por el poder, incluso con nuestros amigos. Me voy a la relación más poderosa que tenemos: ser padre. Es difícil pensar en alguien que tenga más poder sobre otro que un padre con un hijo. Y a la vez el hijo tiene poder sobre el padre, le frustará, le contentará: el hijo tiene un enorme poder de sentido sobre el padre, si eres padre estás "vendido" a tus hijos, eres vulnerable a él. No solamente lo das todo sino que estás rendido a él.

Ciertamente no se trata de ser amigo del hijo: es decir, de superponer el papel de amigo de pandilla al de padre. Pero sí se trata de que exista una sociabilidad liberadora: que el padre muestre lo que realmente siente, muestre sus procesos personales, sus frustraciones, sus fuentes de alegría, le pida ayuda y perdón, etc. Es una de las experiencias más plenas de la filiación: cuando un padre pide perdón a un hijo.

Y a la vez no se trata de una sociabilidad blanda en la que todo es permisividad y agrado del otro sino que también hay autoridad y limitación. No la autoridad del poder del papel social que desempeñas sino la autoridad de tu dignidad. Dice el filósofo Augusto Hortal: si no sabes decir que no, nunca podrás querer. Querer al otro es saber también decirle que no.

Se trata de que la entrevista se incardine en una relación personal que no impide el desarrollo del papel social que uno



izan behar zure rol sozialaren botereak ematen dizuna, zure duintasunean datzana baizik. Augusto Hortal filosofoak zera dio: ezetz esaten ez badakizu, ezingo duzu inoiz maitatu. Bestea maitatzea ezetz esaten jakitea ere bada.

Elkarrizketa harreman pertsonalean txertatzen da, norberak duen rol soziala oztopatu gabe, elkarri mugak jartzea eta ezetz esatea onartuta dagoelarik. Bestetik, elkarrizketa prozesu zabalago batean sartzen da: bi gizaki elkarrekin aurkitzen dira, eta badakite nola hasten den egintza bat -erakunde batek probokatzen du biak leku batean elkartzea, espektatiba batzuekin-, baina ez dakite nora iritsiko diren: neurri batean, aurretik ezin da jakin zein izango den topaketa horren amaiera; baliteke mikroiraultza gertatzea, topaketa eraldatzailea eta argitzailea, etab.

Subjektua inplikatuta dago bere rol profesionalean, ez da ezkutatzen rol sozialaren hesiaren atzean. Ezin du. Eta, botereak bahitutako soziabilitatea erakusten du, ez da gauza ezetz esateko, ez da gauza harremanak izateko, autoritatea onartuz.

Noranzko biko autoritatea, esan dugu lehen: adibidez, zuk mugak jartzen dizkiezu eman ahal dituzun baliabideei, baina besteak ere mugatu egiten du zenbateraino nahi duen zu bere bizitzan sartzea. Badaki zuri ezetz esaten, ez du inbasiorik onartzen, adibidez. Ez du bere historia saltzen, argiaren fakturaren truke. Eta, zu, adibidez, ez zara desleiala erakundearekin, norbait lagundu edo "salbatu" izanaren satisfazioa lortu nahi izateagatik.

Hau esaten dut, parte-hartzeak inplikazio

tiene sino que sabe poner límites mutuamente y decir que no, pero también inscribe la entrevista en un proceso más amplio, el encuentro entre dos seres humanos que saben cómo comienza un acto -por una provocación institucional que les junta en un lugar con unas expectativas- pero que no saben a dónde les llevará, que hay cierta imprevisibilidad sobre el final de ese encuentro, esa entrevista, que es posible una microrevolución, un encuentro transformador, revelador, etc.

El sujeto está implicado en su profesión, no se refugia tras la empalizada de su papel social. No puede. En todo caso adopta una sociabilidad secuestrada por el poder ya que es incapaz de decir que no, no es capaz de relacionarse asumiendo la autoridad.

Una autoridad bidireccional, hemos dicho antes: tú pones límites a los recursos que puedes conceder, por ejemplo, pero el otro también pone límites a la profundidad hasta la que deja que te metas en su vida. Sabe decirte que no, no se deja invadir, por ejemplo. No vende su historia a cambio del recibo de la luz. Y tú, por ejemplo, no eres desleal a la institución con tal de obtener satisfacción



pertsonala eskatzen duelako. Uste dut ez dela bakarrik erakundeak zehaztu beharreko rol berriak elkartrukatzea, baizik eta nolabaiteko inbasioa gertatzen dela, polder-etako uhateak itsasoari zabalduz. Suposatzen du besteen itsasoa sartu egiten dela "pribatua" edo pertsonala deituko genukeen bizitzara, pertsonalaren eremura. Kontua ez da jendea zure etxera zure familiarekin afaltzera gonbidatzea; kontua da zabaldu egin behar dela motibazioen arloa, sentipenena, ideiena, zuk munduan eta egoera honetan betetzen duzun postua definitzearena, zure bokazioa zehaztearena, zertarako zauden honelako egoeretan, etab. Zergatik? Galdutako zerbait berregin behar delako, eta hori gauzen zentzutik bertatik baino ezin da egin. Antolamendu-teknologien kudeaketa hutsa bihurtzen badugu, ondorioa ez da parte hartzea izango, baizik eta gauza berbera eta pertsona berberak izango gara leku gehiagotan. Parte hartzea da parte berri gehiago hartzea, edo maila sakonago batetik hartzea.

**2. Soziabilitatea kudeatzea.**

Beste arazo bat sortzen zait, hau da, iruditzen zait zeregin hau gainkarga bat dela. Parte-hartzea zeregin berri gogaikarri moduan agertzen da, kudeatzen oso zaila, eta normalean alferrikakotzat joko dena. Azkenean, gauzak are txartoago aterako dira erabiltzaileentzat. Ematen du errazagoa eta onuragarriagoa izango litzatekeela beraientzat norberak bakarrik egitea.

Beti ate joka izango dugun tentazioa da. Seme-alabekin gertatzen da. Berak egin beharko luke, baina agian hobe izango litzateke neuk planifikatzea bere bizitza. Askoz hobeto aterako litzaioke, beragatik egiten dut, ez nigatik. Ez genuke

de haber sido útil a alguien, de haberle "salvado".

Digo esto porque la participación supone la implicación personal. Creo que no es solamente un intercambio de nuevos papeles a los que tiene que perfilar la institución, sino que actúa con cierta invasión, abriendo las compuertas de los polders al mar. Supone que el mar de los otros entre a los pólders de la vida que llamaríamos "privada" o personal, al terreno de lo personal. No se trata de invitar a la gente a tu casa a cenar con tu familia, pero sí abrir el terreno de las motivaciones, de los sentires, de las ideas, de tu definición del lugar en el mundo y en toda esa situación, tu posición vocacional, a qué estás en las cosas, etc.  ¿Por qué? Porque se trata de reconstituir algo perdido y eso solamente puede hacerse desde el mismo sentido de las cosas. Si lo reducimos a mera gestión de tecnologías organizativas, se limitará a seguir siendo los mismos en más sitios, no a tomar parte. Tomar parte es tomar nuevas partes o tomarlas desde un nivel más profundo.

**2. La gestión de la sociabilidad**

Otro problema que me surge es que esto me da la sensación que es una tarea que sobrecarga. La participación aparece como una nueva tarea engorrosa, muy difícil de gestionar, que difícilmente no parecerá inútil. Incluso que al final hace que las cosas salgan peor incluso para los propios usuarios. Sería más fácil y más beneficioso para ellos que lo hiciera uno solo.

Es una tentación que nos asalta siempre. Pasa con los hijos. Tendría que hacerlo él, pero casi sería mejor que yo le



denborarik galduko, hobeto egingo genuke, etab.

Kontzientziatu egin behar dugu "prozesu-ondasunen" garrantziaz, ez bakarrik "produktu-ondasunen" edo emaitzen garrantziaz. Helburuak ez ditu bitartekoak justifikatzen, baizik eta bitartekoak dira helburuak edo emaitzak justifikatzen dituztenak: are gehiago, emaitza edo helburuak bitarteko baten edo prozesu baten amaiera hutsa baino ez dira, bitarteko horren azken agerraldia baino ez dira. Prozesu batean, helburuak bitartekoen azken izena dira.

Despotismo ilustratuaren ohiko tentazioa da: dena herriarentzat, baina herririk gabe, herria ezjakina baita, ezgauza, atzerakoia... Beraien menpe bageunde, motelagoak eta ezeraginkorragoak ez ezik, atzerakoiak ere izango ginateke (ironikoa). Gauza bera diote despotismo humanitarioak edo despotismo solidarioak: dena pobreentzat, baina pobrerik gabe.

Baina, jarraitzen dut "denboren beharra" ideiarekin. Eta, hala da, soziabilitatea edukitzea, era berrian parte hartzea, metodologia ezberdinak izateari lotuta dago: denbora gehiago inbertitu behar dugu erakunde arkitekturan. Baina, gauza bera gertatzen zaigu koordinazioan, etab. Badirudi, gauzak hobetzeko, presa gutxiagorekin eta perfekzio handiagorekin egin behar direla. Hori baino, nik uste dut lan egin behar dela erakundeak aldatzeko; horretara daude bideratuta eginkizun asko: itxuraz, ematen du zeregin horiek moteldu egiten dituztela esku-hartzeko proiektuen emaitzak, baina gertatzen dena da bere irismena ez dela proiektua bakarrik, erakundea bera baizik. Eta, horrek ziklo luzeagoak ditu, zeren eta beharrezkoa baitu aldaketak pertsonen

planificara la vida. Le saldría mucho mejor, es algo que hago por él, no por mí. No perderíamos tiempo, lo haríamos mejor, etc.

Tenemos que tomar conciencia de la importancia de los "bienes pro-cesuales", no solamente de los "bienes productuales" o resultados. El fin no justifica los medios sino que los medios legitiman los fines o resultados: es más, el resultado o los fines son meramente la culminación de un medio, de un proceso, son el medio en su última expresión al final de un camino. Los fines son el último nombre que reciben los medios de un proceso.

Bien, es la típica tentación del despotismo ilustrado: todo para el pueblo pero sin el pueblo porque el pueblo es inculto, es inútil, es retrógrado incluso. Si dependiésemos de ellos no solamente seríamos más lentos e ineficaces sino que seríamos reaccionarios (irónico). Lo mismo el despotismo humanitario o despotismo solidario: todo para los pobres pero sin los pobres.

Pero me sigue quedando la idea de necesidad de tiempos. Y es cierto, tener sociabilidad, participar de forma novedosa requiere otros tipos de metodologías en las que invirtamos más tiempo en la arquitectura institucional. Pero lo mismo nos sucede en la coordinación, etc. Parece que mejorar las cosas es hacerlas con menos prisa y más perfección. Más bien creo que hay todo un trabajo de reforma institucional al que van dirigidas muchas de las tareas: nominalmente son tareas que parece que ralentizan los resultados de los proyectos de intervención, pero es que su alcance no solamente es el proyecto sino que es la propia institución y eso

mentalitatean heltzen uztea.

Berriro iruditzen zait gauza praktikoak adierazi behar ditudala. Bileretan edo egintzetan -*ez ohiko bilerak edo elkarrizketak bezain akademiko edo polizialak*- gure kezka sakonak adierazi behar ditugu egiten dugun horretaz. Adibidez, kontua da elkarrizketa bat amaitzean saiatu egin behar dugula bestearekin batera ebaluatzen nola joan den elkarrizketa, nola egin duten batak eta besteak. Nola sentitu zara? Uste duzu entzun zaitudala? Jakina: botereak baldintzatzen gaitu: bestea zu ez haserrarazten saiatuko da, berriro zurekin suertatu ahal baitzaio elkarrizketatu beharra. Baina, aukerak zabaldu behar zaizkio benetakotasunari, subjektuak rolen gainetik egoteari. Hau bat dator Joaquín García Roca-k Dokumentazio Sozialeko azken artikuluan "La revancha del sujeto" (subjektuaren mendekua) deitzen duenarekin.



Gauza praktikoak. Elkarrekin ebaluatu behar da, edo bitartekari batekin, adibidez. Erakundearen agindupeko guneak partekatzea da kontua. Hor, egia esan ahalko diogu elkarri, bestearen zigorraren beldurrik gabe ("ez dizut baliabide gehiagorik emango", edo "lortuko dut zuri alferrikakoa iruditzea zure lana").

Hau ohikoa da hezkuntzan. Irakasleak suspentsoa ematen du, eta ikasleak lortzen du zentzua kentzea beraren alde ikasturte osoan egin duzunari, bizitza galdu dezazula lortzen du. Botere horrek sakonago zauritu dezake, zauri

tiene ciclos más largos porque requiere dejar que maduren cambios en la mentalidad de las personas.

De nuevo tengo la sensación de que necesito indicar cosas prácticas. Estoy hablando de reuniones o actos -*no tan académicos o policiales como las reuniones o las entrevistas*- en los que expresemos nuestras preocupaciones de fondo sobre lo que hacemos. Por ejemplo, se trata de que al final de una entrevista intentemos evaluar con el otro cómo ha discurrido la entrevista, cómo lo ha hecho uno y el otro. ¿Cómo se ha sentido usted? ¿Cree que le he escuchado? Claro, estamos mediados por el poder: el otro tratará de no indisponerse por si le toca otra vez contigo la entrevista. Pero se trata de abrir oportunidades a la autenticidad, a que los sujetos estén por encima de los papeles. Vamos en línea con lo que Joaquín García Roca denomina en su último artículo en Documentación Social, "La revancha del sujeto".

Cosas prácticas. Se trata de evaluar juntos o con otro que medie, por ejemplo. Se trata de compartir espacios no dominados por la institución. Donde podamos decirnos algunas verdades sin miedo a la represalia del otro (no te concedo más recursos o hago que tu trabajo te parezca inútil).

Se vive en el mundo educativo. El profesor suspende y el alumno hace que carezca de sentido todo lo que has hecho durante el curso con él, que pierdas la vida. Su poder puede dañar más hondo,



sakonagoak egin ahal dizkie gauzen eta zure denboren zentzuari. Berak asignatura bat galtzen du, eta zuk bizitzaren zati bat.

Baliteke beste metodologia batzuk behar izatea, erakundeen boterea gainditzen laguntzen digutenak, zeren eta botere horrek murriztu egiten baitu era askeagoan parte hartzeko behar den soziabilitatea. Behar ditugun metodoek lagundu egin beharko ligukete erakundearen pisua zeharka, albotik, gainditzen. Aplikatzen ditugun metodoek erakundearen formatua badute (lan-bilerak, adibidez), seguraski, agerian geratuko diren kodeek gehiegi gogoraraziko digute erakundea, eta honek oztopatu egingo du beraren logikatik alde egitea. Zabaldu egin beharko ditugu erakundeak dituen guneak, gune parainstituzional berriak beharko genituzke, bietako ezein boterek kontrolatuko ez lituzkeenak. "Kalean ikusiko dugu elkar" esatea bezala da, edo "off the record, esadazu zer pentsatzen duzun, ez dut ofizialki kontuan hartuko".

Egia esan, gure lanean askotan badaude bere erakundearen agente moduan operatzen ez dutenak, baizik eta bitartekari-lana egiten dute pertsona eta erakundearen artean eta, batzuetan, erakundeari laguntza eskatzen dion pertsonaren ordezkari sindikal bezala. Dagoeneko, badago erakunde arteko gune hori.

Errealitatean, hau guztia ez zaie bakarrik aplikatzen erakundeak garatzen dituen laguntza-harremanei, baizik eta jada maila honetan konturatu egiten gara arazo hau erakundeetan izaten diren harreman guztien oinarrian dagoela. Soziabilitatearen eta parte-hartzearen

al sentido de las cosas y de tus tiempos. Él pierde una asignatura y tú pierdes algo de vida.

Posiblemente necesitamos metodologías que nos ayuden a superar el poder institucional que constriñe la sociabilidad necesaria para participar con más libertad. Necesitamos métodos que nos hagan superar lateralmente o indirectamente, oblicuamente, el peso de la institución. Si aplicamos métodos que tienen el formato de la institución (reuniones de trabajo, por ejemplo), posiblemente se verán demasiados códigos que recuerdan demasiado a la institución e impiden salir de su lógica. Nece-sitaremos ampliar los espacios de la institución, necesitaríamos nuevos espacios parainstitucionales que no estén dominados por ninguno de los dos poderes. Es como cuando nos decimos "nos vemos en la calle" o decimos, "off the record, dime lo que piensas, no lo tendré en cuenta oficialmente".

De hecho, en nuestro trabajo muchas veces hay gente que no opera como un agente de la institución para la qu etrabaja sino que opera como un mediador entre la persona y la institución y, a veces, como el representante sindical del demandante de ayuda a la institución. Ese espacio interinstitucional existe ya.

En realidad todo esto no se aplica solamente a la relación de ayuda que desarrolla la institución sino que a estas alturas ya sentimos que es un problema que se halla en la base de todas nuestras relaciones en las instituciones. Esa cuestión de la sociabilidad y la participación no solamente se da con el destinatario de la acción social sino que se da en mi relación con mis jefes y con mis compañeros.

inguruko kontu hau ez da bakarrik gertatzen gizarte-egintzaren jasotzailearekin: nire nagusiekin eta lankideekin ditudan harremanetan ere gertatzen da.

Askotan, konpontzeko modua izaten da azpimundu bat sortzea, harreman eta konplizitatez betea, erakundean bizirautea edo erakundea jasatea ahalbidetzen duena.

Honetan, Michel Maffesoliren alde egingo nuke: errealitatean, soziabilitatea ("soziazioa") da egiazko erakundea. Erakundea, esango genuke, soziabilitatearen egoera baten gaineko diskurtso nagusia baino ez litzateke izango. Errealitatean, azpimundu emo-zionalak -sakon ulertuta, zentzu eta sentimendu bezala, gauzen eta besteen zentzu bezala- "sottogoberno" dira (italiar erara), eta horrek dena funtzionarazten du, zeren eta arau eta dekre-tuengatik balitz, dena eroriko litzateke paper bustiz egindako gaztelu bat bezala.

**3. Ez dugu zertan lagun izan, elkarrekin lan egiteko.**

Beste arazo bat. Ematen du partehartzeak denen lagun izatera behartzen nauela. Ez da horrela, baina bai behartzen gaituela benetakotasun- eta berradiskidetze-guneak zabaltzera, hori izango baita lankidetzetarako oinarria. Behartuta gaude irekitasunera, topaketa ahalbidetzera, harremanak ez itxi edo ez zapuztera, ez baztertzera.

Etsaitasunak ere eginkizun positiboa du prozesuan. Ez gara ari bestea ezabatzeko gogoaz -horrek ez du esan nahi ezetz borobilik adierazi ezin dugunik, edo kaleratzerik edo jendearen arteko banaketarik egon behar ez denik- baina

Lo solucionamos muchas veces con un submundo de relaciones y complicidades que hacen vivible o a veces solamente soportable la organización.

Apoyaría en esto a Michel Maffesoli: en realidad, la sociabilidad (la "sociación") es la verdadera organización. La organización. Diríamos, es meramente el discurso domi-nante sobre un estado de la sociabilidad. En realidad los submundos emocionales -en sentido profundo, de juicio y sentimiento, de sentido de las cosas y de los otros- son el "sottogoberno" (a la italiana) que hace que todo funcione porque si fuera por las normas y los decretos, todo se caería como un castillo de papel mojado.

**3. No tenemos que ser amigos para trabajar juntos**

Otro agobio. Parece que la participación me obliga a ser amigo de todos. No, pero obliga a abrir espacios de autenticidad, de reconciliación, como base de donde salen las cooperaciones. Obliga a la apertura, a la posibilidad de encuentro, a no dar relaciones por cerradas o sentenciadas, a no excluir.

Incluso la enemistad tiene un papel positivo en el proceso. No el deseo de eliminar al otro -lo cual no significa que no formulemos noes rotundos o incluso que existan despidos o separaciones de gente-pero sí de asumir nuestras limitaciones: hay gente con la que media una adversidad que puede tener su papel en el proceso global.

**4. El problema de la desestructuración y de la inadecuación**

Y un problema más grave que todo eso. Tener participación requiere tener



bai geure mugak onartzeaz: batzuekin eduki dezakegun aurkakotasunak bere zeregina bete lezake prozesu globalean.

**4. Desegituraketaren eta desegokitasunaren arazoa.**

Eta hori guztia baino arazo handiago bat. Parte-hartzea izateko, parte hartzeko gauza diren subjektuak behar dira. Gure lantaldeetan gertatzen da, eta, jakina, baztertutako pertsonekin ere bai.

## GELDIALDIA EGIN BEHAR DUGU

Geldialdia: Pentsatu ahala idazten ari naiz, aurretiko eskemarik gabe, eta zuzentzeko atzera bueltarik gabe. Ez daukat astirik testua berregiteko, ezta sistema-itxura emateko. Hala ere, baliagarria izatea espero dut; atera ezazue ahal duzuen probetxua presakako hitz hauetatik. Ez dut uste asko urrundu naizenik planteatutako galderetatik, seguraski baietz pentsatzen ari zareten arren. Galdera asko sortzen zaizkit. Ea argitzen ditudan.

Argi dago gure ekintzen jasotzaileek puntu askotan hartu ahal dutela parte. "Neuk ere hartu nahi nuke parte gauza horietan guztietan", pentsatuko du norbaitek. "Niri ez didate parte hartzen uzten, berak hartuko du parte...", pentsatuko du beste batek.

Jasotzaileak dira, erabiltzaileak, onuradunak, batzuek "bezero" ere deitzen diete; baina, nahi genuke partehartzaileak izatea, lagunak, auzokoak, lankideak, konplizeak, beraientzakoa eta beraiekikoa den egintza batean. Aita Pedro Arrupe handiak zioenez, "gizakiak izan besteentzat eta besteekin".

sujetos capaces de participar. Nos pasa en nuestros equipos de trabajo y, por supuesto, con las personas en exclusión.

## PARÓN,ALTO EN EL CAMINO

Parón: escribo este texto conforme pienso, sin un esquema previo y sin corregir nada hacia atrás. No tengo tiempo para rehacer el texto ni darle la apariencia de un sistema. No obstante, espero que sea algo útil, aprovechad lo que podáis de estas palabras apresuradas. Veo si me he alejado mucho de las preguntas que se hacían y por mi parte creo que no, aunque probablemente estéis pensando que sí. Veo un montón de preguntas que me surgen. A ver si puedo darles salida.

Por supuesto que hay muchos puntos en los que pueden participar los destinatarios de nuestra acción. "Ya quisiera poder participar yo en todas esas cosas", pensará alguno. "No me dejan participar a mí, va a participar él...", pensará otro.

Son destinatarios, usuarios, beneficiarios, incluso llamados por algunos "clientes", pero quisiésemos que fuesen participantes, compañeros, vecinos, colaboradores, cómplices de una acción que quiere ser no solamente para ellos sino con ellos. Como decía el gran padre Pedro Arrupe, ser "hombres para y con los demás".

Pero es que la misma aspiración tenemos nosotros. A no trabajar en una institución sino a participar en un movimiento que se parezca lo más posible a la vida o a una revolución, a una aventura en la que provocamos un cambio cualitativo, una continua conversión de las cosas.

Baina, guk gauza bera nahi dugu. Ez dugu erakunde batean lan egin nahi; parte hartu nahi dugu bizitzaren edo iraultza baten ahalik eta antzekoena den mugimendu batean, parte hartu nahi dugu aldaketa kualitatiboa eta gauzen etengabeko bilakabidea eragiten duen abentura batean.

Funtsean, parte hartzea bizitzan kokatzea da, ez boterean. Horrela, saiatu egiten gara bizitzak askatu gaitzan dauzkagun eta gauzkaten botereetatik.

Era azkarrean. Parte hartu ahal dute ezagutza-prozesu guztietan, eragin-kortasun publikoan, adierazpen eta sentsibilizazio publikoan; parte hartu ahal dute borondatezkoak diren garapen pertsonaleko guneetan, erakundeari lagundu ahal diote ebaluatzen, ideiak ematen, saiatu ahal dira langileen garapen pertsonalari laguntzen (pertsona horrek nola uste duzu egiten duela bere lana?), lagundu ahal dute ikertzen, ebaluatzen, konponbide praktikoak azaleratzen.

Berrikuntza-bulegoa beharko genuke, "barne-arazoetarako" polizia moduan funtzionatuko lukeena, baina, bestetik, askatze-zerbitzua izango litzatekeena, elipsiak zirriborratuz (irten eta itzuli eliptikoki, zeharka, alboka), "kanpo-arazoetarako" jendea (benetan barnekoa dena).

Badago programa praktiko oso bat, zehaztu daitekeena, baina iruditzen zait nire eginkizuna dela honen guztiaren iturria zein den jakiten saiatzea. Apur bat aztertu dugu parte-hartzearen jatorrizko bizipena, galdutako unitatearen berreraketa bezala, eta analizatu egin dugu soziabilitatearen mugimendua.

En el fondo participar es ubicarnos en la vida y no en el poder. Es intentar que la vida nos libere del secuestro de los poderes que tengo y me tienen.

De forma rápida. Pueden participar en todos los procesos de conocimiento, en la incidencia pública, en la expresión y sensibilización pública, pueden participar en espacios de desarrollo personal de carácter voluntario, pueden ayudar a la organización evaluando, dando ideas, pueden intentar ayudar al desarrollo personal de los trabajadores (¿cómo crees que tal persona hace su trabajo?), pueden ayudar a investigar, a evaluar, a poner de manifiesto las soluciones prácticas.

Tendría que haber una oficina de innovación que funcionaran como los policías de "asuntos internos" pero a la inversa, como un cuerpo de liberación que trazara las elipsis (salir y volver elípticamente, indirectamente, lateralmente), la gente de "asuntos externos" (que son los auténticamente internos).

Hay todo un programa práctico que se puede concretar, pero siento que mi papel sería el de intentar ver cuál es la matriz de la que surge todo eso. Hemos explorado algo la vivencia original de la participación como reconstitución de la unidad perdida y hemos analizado el movimiento de la sociabilidad.



# 3. Hirugarren atala: Parte-hartzea gure garaiko dinamika bezala
# Tercera parte: La participación como dinámica de nuestra época

Orain, planteamendu sistematikoagoa eta generikoagoa egin nahi dut, jada ez parte-hartzearen lurrazpiko mugi-menduetatik, joera orokorrago eta historikoagoetatik baizik. Nik uste dut partehartze-mugimendu hau Neomo-dernitatearen mugimenduan txertatzen dela, gure mundua moldatzeko lehian ari diren gaur eguneko egituretan.

Ezaugarri hauek azaldu nahi ditut, parte-hartzearen baldintzei zuzenean eragiten dietelako. Parte-hartzeak, gure garai honetan, inoiz baino mehatxu handiagoa jasotzen du neoliberalismotik, baina, aldi berean, zenbait gako ere badaude, inoiz baino gehiago potentziatzen dutenak.

Aurreko zatian, gauza garrantzitsuak komentatu gabe geratzen zaizkidan arren, hitzaldi-ordubete hau errefe-rentzia horrekin amaitu nahi dut, gure gaia -onuradunen partehartzea gizarte-egintzako proiektuetan- modu partikularrean ulertzetik ateratzen gaituelako, eta erakusten digulako gure garairako zerbait funtsezkoa den gai bat bezala. Dudarik gabe, baztertutakoen parte-hartzearen bidegurutzean, gizarte zibila bere justizia eta etorkizuna erabakitzen ari da. Parte -hartze handiagoa lortuko bagenu, eta orokortu litekeen partehartze- eredu aplikagarri bat sortzea, emaitza bikaina eta oso biderkagarria lortuko genuke, gizarte-bazterkeriaren arazoan egitura-eragina izango lukeena, zeren eta argi baitago hau gure garaiko zatiketa historikorik handiena dela.

Ahora quiero hacer un planteamiento más sistemático y genérico ya no desde los movimientos subterráneos de la participación sino desde las tendencias más generales e históricas. Creo que este movimiento de participación se inscribe en el movimiento de la Neomodernidad, en las actuales estructuras que pugnan por modelar nuestro mundo.

Quiero exponer estos rasgos porque afectan directamente a las condiciones de la participación. Nuestra época la amenaza como nunca a través del neoliberalismo, pero también posee claves que la potencian como nunca también.

Aunque todavía me quedarían cosas importantes que comentar en la anterior parte, quiero terminar esta hora de conferencia con esa referencia porque



Nahiz eta oso labur eta eskematikoki izan, kontu esanguratsu batzuk birpasatu nahi ditut. Parte-hartze honek zerikusi berezia du, txikitik handira neurri batean, lau egiturarekin: erreflexibitatea, arrisku-gizartea, informazionalizazioa eta erretikularitatea.

Ez daukat dena idazteko astirik; beraz, eskematikoki azalduko dut:

1. Erreflexibitatea:

**a.** Gauzen zentzuaz ardura hartu beharra.

**b.** Diszernitzeko edo bereizteko beharra, errezetarik gabeko mundu konplexu batean. Egiak bai, baina errezetarik ez dago. Arazo bakoitzak bere metodologia behar du.

**c.** Pertsonek eta kokaguneek erreflexibitaterako beharra dute. Autoerreferentzialitaterako beharra baino, ardura hartu behar dute egiten dutenaren zentzuaz (morala, egiazkotasuna, etab.).

2. Arrisku-gizartea

**a.** Eztabaidatu egin behar da, suebakiak ireki behar dira suari bidea ixteko, hesiak jarri behar dira prozesuak amildu ez daitezen, prozesu-jausirik gertatu ez dadin. Eztabaida-guneak sortu behar dira.



nos saca de nuestra cuestión -la participación de los beneficiarios en los proyectos de acción social- como un asunto particular y nos la presenta como una cuestión en la que se está jugando algo fundamental de nuestra época. Sin duda, la participación de los excluidos es la encrucijada donde la sociedad civil se juega su justicia y su futuro. Si lográsemos una mayor participación, generar un modelo practicable de participación que pudiera ser generalizado, haríamos un bien muy multiplicable y que incide estructuralmente en el problema de la exclusión social, que es la mayor división histórica de nuestro tiempo.

Aunque muy somera y esquemáticamente, quiero repasar algunas cuestiones significativas. Esta participación, especialmente tiene que ver, en cierto modo de menor a mayor, con cuatro estructuras: la reflexividad, la sociedad de riesgo, la informacionalización y la reticularidad.

No tengo tiempo ya de escribir todo así que lo expongo en esquema:

1. Reflexividad:

**a.** La obligación de hacerse responsables del sentido de las cosas.

**b.** La necesidad del discernimiento en un mundo complejo en el que ya no hay recetas. Hay verdades pero no recetas. Cada problema reclama una metodología.

**c.** Personas y enclaves están obligados a la reflexividad. No a la autorreferencialidad sino a la responsabilidad por el sentido (moral, verdadero, etc.) de lo que hacen.



**b.** Konkretuaren "santutasunean" zentratu behar da, eskalaren tentazioaren aurrean. Zerbait perfekzioz egin behar da, guztia lortzeko borrokan saiatu ordez: ez da partikularismoan aritzea, gizarte-eraginaren dinamika ulertzea baizik (biderkatzailetasuna).

3. Informazionalismoa

**a.** Uste dut hemen dagoela parte-hartzearen kutxa gotorra.

**b.** Jarraian, aurretik egindako zenbait idazkiri helduko diet, orain aplikagarriak direnak. Agian, uneren batean, adibideak ez dira izango zuen inguruari dagozkionak. Irakurri ahala, moldatzen joango naiz, gakoa zein den ikus dezagun.

**c.** Interpretazio- eta zentzu-sistema guztiak bihurrikatzen diren garai batean, ondorio logikoa da informazio-politikek eta metodologiek leku nagusia hartzea. Garapen informazionala hiru gauza hauetan datza: garapen-modu bat (Castells-i jarraituz, enpresa eta erakundeetan, produktibitate-iturria, informazioa eskuratzeko, tratatzeko eta aplikatzeko prozedurak hobetzean dago), legitimazio-modu bat (legitimazioa gero eta lotuago dago parte-hartzearen hobekuntzarekin), eta jakituria-modu bat (hau gero eta lotuago dago hermeneutiken hobekuntzarekin).

**d.** Funtsean, informazionalizazioak gizarte-prozesu guztien hermeneutizazioa eskatzen digu: gizarte-prozesu guztiak - zientifikoak, identualak, instituzionalak, produktiboak, politikoak, etab.- era erradikalean birpentsatu behar ditugu; eta, bigarren eta hirugarren mailako gogoeta batekin hasi behar dugu, pentsatzeko erabiltzen ditugun metodoei buruz. Informazionalizazioagenda baten

2. Sociedad de riesgo

**a.** Obliga a la deliberación, a abrir cortafuegos que detengan el fuego, a interponer barreras que impida la el desbocamiento de los procesos, el alud de los procesos. Necesidad de espacios de deliberación.

**b.** Concentra en la "santidad" de lo concreto contra la tentación de la escala. A hacer con perfección algo en vez de intentar la lucha del todo: no es particularismo sino entender la dinámica de la influencia social (multiplicatividad).

3. Informacionalismo

**a.** Aquí está la caja fuerte de toda esta cuestión de la participación, creo.

**b.** Recurro a continuación a escritos que ya tenía hechos antes y que pueden aplicarse. Quizás en algún momento los ejemplos no son los específicos de vuestro entorno. Durante su lectura, lo iré adaptando para que veamos cuál es la clave.

**c.** Es consecuente que en un tiempo en el que todos los sistemas de interpretación y sentido se contorsionan, las políticas y metodologías de información ocupen un lugar principal. El desarrollo informacional consiste en tres cosas: un modo de desarrollo (que, como Castells, dice que la fuente de productividad está en la mejora de los procedimientos de captura, tratamiento y aplicación de la información en empresas y organizaciones), un modo de legitimación (que dice que la legitimación depende cada vez más de la mejora de la participación) y un modo de sabiduría (que dice que ésta cada vez depende más de la mejora de las hermenéuticas).

neurri nagusia ez da ideia-katalogoa sortzea, baizik eta ezagutza ekoizteko metodologia berriak bilatu eta ezartzea -eta ezagutzaz, zentzua duen edozein egintza ulertzen dut, datuak aurkitzetik ekintza moraletara, informazioa administratzetik judizio deontologikoetara-. Gobernatzen dutenek -enpresek, administrazioek, GKEek, edo elizbarrutiek, etab.- ez dute datu gehiagorik nahi -sobera dituzte-, baizik eta beharrezko datuetan oinarritutako analisia nahi dute: erudiziorik ez, analisia nahi da. Informatizazioak erudizioa biderkatzeko arriskua du -hitz zibermodernoagoekin izan arren-, eta horrela analisia sistema estatistikoetan baino ez litzateke lortuko: presako dena ez da datuen kudeatzailea, datu-irakurgailua baizik.

**e.** Informazionalizazioak beharrezkoa du pentsamendu -prozesuak kualifikatzea, baita eztabaidakoak, bereizmen edo diszernimendukoak eta komunikaziokoak ere. Horretarako, informazionalizazioak erakunde-bultzada ematen du, sinergiak sortzen ditu bigarren modernitateko beste fenomeno batzuekin, baina ia ez du bere lekutik mugitzen funtsezko metodologia: pertsona bat errealitateari begira, paper zuri baten aurrean. Izan ere, informazionalizazioak pertsona kontenplatiboak behar ditu, tradizio erlijiosoei jarraiturik horrela deitu ahalko geniekeelarik. Informazionalizazioa kontenplatiboen garaia da, zeren eta prozeduren optimizazioa azkenean horrelakoen esku baitago: zerbaiti libre eta erradikalki begiratzeko gauza izan diren eta horren berri eman duten horien esku.

**f.** Informazionalizazioak prestakuntzarako denbora gehiago eskatzen digu, ebaluatzeko dedikazio handiagoa,

d. En el fondo, la informacionalización nos plantea una hermeneutización de todos los procesos sociales: repensar radicalmente todos los procesos sociales -científicos, identuales, institucionales, productivos, políticos, etc.- comenzando por una reflexión de segundo y tercer grado sobre cuáles son los métodos que usamos para pensar. La medida de fondo de una agenda de informacionalización no es producir un catálogo de ideas, sino buscar e implementar nuevas metodologías de producción de conocimiento -y cuando digo conocimiento me refiero a todo tipo de hecho de sentido, desde hallazgo de datos hasta acciones morales, desde la administración de información a juicios deontológicos-. Los que gobiernan -las empresas, las administraciones, las ONG o las diócesis, etc.- no buscan más datos -les sobran- sino que quieren el análisis respaldado por el dato necesario: no se quiere erudición sino análisis. La informatización corre el riesgo de multiplicar la erudición -aunque con palabras más cibermodernas- y no lograr el análisis más que en los sistemas estadísticos: lo urgente no es el administrador sino el lector de datos.

**e.** La informacionalización requiere cualificar los procesos de pensamiento, deliberación, discernimiento, comunicación... La informacionalización imprime un impulso institucional para ello, crea sinergias con otros fenómenos de la segunda modernidad, pero apenas mueve la metodología fundamental de su sitio: una persona mirando de frente la realidad y frente a un papel en blanco. Efectivamente, la informacionalización requiere personas que podríamos llamar, haciendo uso de las tradiciones religiosas, contemplativas. La informacionalización es el tiempo de los

prozesuen kalitatea aztertzeko lan handiagoa, entzuteko irekitasun handiagoa, arazo nagusiez, eta ez huskeriez gehiago hitz egitea. Enpresarik onenak ez du pentsamenduaren teknologorik behar, jenio sortzaileak baizik: kontenplatibo erradikal hauek ideien ekarpena egingo diete teknikariei -hauek ere, lehen lerroan, sortzaileak-, ideia horiek garatzeko eta programa operatiboak formulatzeko.

### 4. Sare sozialaren paradigma

**a.** Garai honetako ardatzetako bat soziabilitate berri bati dagokio. Mundu osoan sumatzen ari da erakundeen birfundazioa, bi dinamikarengatik: batetik, hedatu egiten da sare-harremanen logika eta, bestetik, harremanak gero eta indibidualistagoak dira. Sarearen metafora egokiena da ezaugarri horiek adierazteko. Sarearen logikak muturrera eramaten du indibiduoen autonomia: batetik, jarduteko askatasuna azpimarratzen du eta, bestetik, ez du bermatzen komunitate sendo bat pertsonaren inguruan, arazoak sortzen badira babestu ahalko duena. Autonomoagoak eta bakar-tiagoak. Jendeak kontzientzia handiagoa du bere indibidualtasunaz, eta erakundeek eta taldeek autonomoagoak direla uste dute. Sare-nodo bat bezala ere ulertzen da, pertsona eta taldeei lotua, muturrak

contemplativos, porque donde se juega al final la optimización de los procedimientos es en alguien que ha sido capaz de mirar libre y radicalmente algo y sabe dar cuenta de ello.

**f.** La informacionalización nos exige mayor tiempo de formación, más dedicación a la evaluación, más actividad de examen de la calidad de los procesos, mayor apertura a la escucha y a la conversación sobre cuestiones de fondo y no banalidades. La mejor empresa no requiere tecnólogos del pensamiento, sino genios creativos, contemplativos radicales de los que extraer ideas que luego los técnicos -también creativos en esa primera línea- desarrollen y con las que formulen programas operativos.

### 4. El paradigma de la red social

**a.** Uno de los ejes de esta época va girando en torno a una nueva sociabilidad. En todo el mundo se está resintiendo una refundación de las instituciones por dos dinámicas: por un lado se extiende una lógica de relación en red y por otro lado las relaciones son más individualistas. La metáfora de la red aparece como la más adecuada para expresar sus características. La lógica de la red extrema la autonomía de los individuos: por una parte, acentúa la libertad de acción y por otro no garantiza



norabide askotara luzatuz. Lehenengo arazoarekin aurkitzen gara: erakundeak gero eta indibidualizatzaileagoak dira, eta ematen du harremanak ez daudela aurretiko komunio haustezin batean oinarrituta, eta bizi garela indibidualtasun autosufiziente baten fantasiaren azpian.

**b.** Baina, sarea hori baino gehiago da. Sarea jendearen arteko lankidetzarako logika berria da. Sarean bizi eta lan egiteak berekin dakar sarenodo bakoitzak ez duela era kateatuan bere jakituria eta boterea goragoko postuetara transferitzen. Gainditu egiten du gizartearen antolamendu hierarkikoa, eta antolamendu horizontalagoa bilatzen du, sareko puntu bakoitzari jabetasunedo ahalmen-maila handiagoa eman nahi zaiolarik -puntu horiek pertsonak, taldeak edo erakundeak izanik-. Mendekotasunetan oinarritutako antolamendu bertikaletik sinergien sareantolamendura pasatzen da.

**c.** Sinergia jarduera partekatua da, eta horren emaitza parteen batuketarena baino handiagoa da. Sinergia parteen arteko harremanetatik sortzen da: eta bakarrik sortu daiteke parteen arteko harremanak sortzaileak baldin badira. Horrela sortutako harremanek aktibatu egingo dituzte subjektuek bizirik sentitzen ez dituzten potentziak, edo direnik ere inolako susmorik ez dutenak.

Batzuetan, norbaiten ondoan beste bat egote hutsa nahikoa da harreman sinergikoa sortzeko, baina biderkatu egiten da lankidetzan hasten direnean, biak sare bereko kide sentitzen direnean, beraien harremana sare horretan pieza bizia izanik. Sinergia ez da indarbatuketa, fenomeno biderkatzailea baizik: batak eta besteak ikusiko dute atera egiten direla gauzak, lehenago bakoitza

una comunidad suficientemente sólida alrededor de la persona como para poder protegerle en caso de que aparezcan problemas. Más autónomos y más solos.

La gente tiene una mayor conciencia de su individualidad y las instituciones y grupos se imaginan con mayor autonomía. También se concibe conectado con personas y grupos como si fuese un nudo de red que tiende cabos en muchas direcciones. Aquí hay un primer problema: las instituciones son cada vez más individualizadoras y parece como si las relaciones no estuvieran referidas a una comunión previa e irrompible sino que vivimos bajo la fantasía de una individualidad autosuficiente.

**b.** Pero la red es más que eso. La red es una nueva lógica de cooperación entre la gente. Vivir y trabajar en red supone que cada uno de los nudos de la red no transfiere todo su saber y poder en cadena hacia los puestos más altos. Supera la organización jerárquica de la sociedad en favor de una organización más horizontal en la que se busca empoderar cada vez más a cada punto de la red -sean esos puntos personas, grupos o instituciones-. Se pasa de una organización vertical de dependencias a una organización reticular de sinergias.

**c.** La sinergia es una acción compartida cuyo resultado supera la suma de las partes. La sinergia es aquello que surge de la propia relación de las partes: aquello que sólo puede surgir si esas partes se relacionan entre sí creativamente. La sinergia supone establecer relaciones que van a activar potencias que los sujetos no sienten vivas o de cuya existencia ni siquiera tienen sospecha.



bere aldetik atera ezin izango zituzketenak, eta parteen batuketa hutsa baino gehiago direla. Sareak biderkatu egiten ditu ekarpenak, agentzia edo pertsona indibidualak inoiz lortuko lukeenaren gainetik.

**d.** Sarean lan egiteak mendekotasunak murriztea eta lankidetza handitzea dakar. Sareak bilatzen duen independentzia ez da autarkiara eramaten gaituena, baizik eta irizpideindependentzia ematen diguna, bizitzako arlo guztietan behar diren galderak egiteko gauza izateko. Adibidez, kontua ez da medikuntzan lizentziatua izatea, baizik eta medikuak behar bezalako gardentasuna edukitzea, norberak, irizpide egokiarekin, erabakitzeko askatasun handiagoa izan dezan. Ez da medikua ordezkatu behar, baizik eta bakoitzak bere irizpidea eduki behar du, bere gaitasunetatik galdetu ahal izateko.



**e.** Baina, mundu guztia ez dago sareharremanak edukitzeko prest, eta orduan bestea ezereztea bilatzen du, ordezkatzea, menperatzea, sarea apurtzea. Argi dago guraso eta irakasleen arteko harremanetan. Sarean lan egiteak sinergiak biziagotzea dakar, informazioa partekatzea, jakitea zein estrategia pedagogiko erabiltzen duen irakasleak zure seme-alabarekin, irakasleak ere jakin dezala zer egiten den etxean, eta horrela ahaleginak batu eta biderkatzen dira. Gurasoek askoz gehiago jakin ahal izango dute, askoz ekarpen handiagoa egin ahal izango dute, informazioa emango dute eta informatuago egongo dira.

A veces la mera presencia de otro al lado de alguien es suficiente para suscitar una relación sinérgica, pero ella se multiplica cuando se establece una colaboración, cuando ambos se sienten miembros de una red en la que su relación es una pieza viva. La sinergia no es una adición de fuerzas sino que el fenómeno es multiplicativo: uno por el otro van a ver que salen cosas que antes ninguno de los dos hubiera podido aportar por separado y que son más que la mera suma de las partes. La red multiplica las aportaciones por encima de lo que cada agencia o persona individuamente nunca podría lograr.

**d.** Trabajar en red supone reducir las dependencias para intensificar las cooperaciones. La red no busca el tipo de independencia que nos vuelve a la autarquía sino aquella independencia que da criterio para ser capaz de hacer una interpelación suficiente en todas direcciones de su vida. Por ejemplo, no se trata de que uno sea licenciado en medicina pero sí de que el médico sea suficientemente transparente como para que a uno le dé criterio para tener más libertad de decisión. No se trata de sustituir al médico sino de que uno tenga criterio para interpelarle desde sus propias competencias.

**e.** Pero no todo el mundo está dispuesto a relacionarse en red y entonces es cuando busca anular al otro, sustituirle, dominarle, romper la red. Es claro en la

Baina, lan hori egiteko edo askatasun horren menpean jartzeko prest ez badaude, patologiak handitu egingo dira: irakaslearen lekua hartu nahi izango dute, gutxietsiko dute edo beraiek hartu nahi izango dute nagusitasuna, horrela irakaslea beraien eta beraien irizpideen mendekoa izan dadin. Edo isolatu egingo dira, pasibotasunean edo absentzian babestuko dira. Sarea irakaslearen aldetik ere deformatu ahal da: irakaslea gurasoak infantilizatzen saiatu daiteke, nagusitasuna bilatu ahal du, gurasoak mendeko bihurtzea seme-alaben gainean duen boterea erabiliz, beldurraren bidez; jakituria monopolizatzen saiatu ahal da: orokorrean, autoritarismoak ez digu pertsona sendoez hitz egiten; ahultasun beldurti eta gaixotia azaleratzen du, besteen askatasuna jasateko gaitasunik eza, eta tolerantzia eskasa nork bere buruarekin dituen zalantzei dagokienez.

**f.** Interneten bezala, besteak dena eduki behar du prest; besteak, gauzak egiteko, nik daukadan informazioa eduki behar du; subjektuek jabe izan behar dute (ahalmena eduki behar dute) autonomoagoak izateko; eta, nire lanak gardenagoa izan beharko du. Bakoitzak ez du bere jakituria gorde behar, isolatuta,



relación de los padres con los profesores. Trabajar en red implica avivar las sinergias, compartir información, saber cuáles son las estrategias pedagógicas que el profesor emplea con tu hijo, que el profesor sepa también que es lo que se hace en casa y de esa forma se combinan y multiplican esfuerzos. Los padres sabrán mucho más, podrán aportar mucho más, podrán dar información y estar más informados.

Ahora bien, si no están dispuestos a ese trabajo o a exponerse a esa libertad, se intensificarán las patologías: buscarán tomar el lugar del profesor, minusvalorarle o querer dominar ellos la relación buscando que el profesor sea dependiente de ellos y sus criterios. O se aislarán, se refugiarán en la pasividad o en la ausencia. También la red puede deformarse por parte del profesor: el profesor puede intentar infantilizar a los padres, puede buscar dominarles, imponerse a través del poder que tiene sobre sus hijos utilizando el miedo, puede intentar monopolizar el saber: en general el autoritarismo lejos de hablarnos de personas fuertes nos revelan una enfermiza y temerosa debilidad, incapaz de aguantar la libertad de los otros y una baja tolerancia con las dudas que uno mismo tiene sobre sí.

**f.** Como en Internet, se trata de que el otro tenga todo disponible, que el otro tenga la información que yo poseo para hacer las cosas, supone empoderar a los sujetos para ser más autónomos, que mi trabajo sea transparente. No se trata de cada uno conservar su conocimiento aislado para que el otro dependa de mí sino de compartir mis secretos para que el otro pueda conocer todo el proceso de mi trabajo: eso no reducirá la importancia de mi papel sino que lo



bestea mendean izateko: nire sekretuak partekatu behar ditut, besteak nire lanaren prozesu osoa ezagutu ahal izan dezan: horrek ez du nire eginkizunaren garrantzia murriztuko, baizik eta aberastu egingo du besteak egiten dizkidan galdera eta ekarpenekin -sinergiak-. Baina, horretarako, askatasuna nagusi den giroa behar da, apaltasunari bide ematen dion askatasuna: beldurrak sinergia itzaltzen du.

**g.** Modernitate aurreko Eliza, batez ere, parrokietako zirkulu zentrokideen bidez antolatu zen. Geroago, modernitatean, korporazio katolikoen bidez jardun zuen, bere erakundeekin mundu kristauagoa egin nahian. Postmodernismoan, apostolutza mugimendu berrien bidez bideratu zen, gizarte-mugimendu berriak zabaltzen ziren bitartean. Elizan, zertara eramango gaitu sare-logikak? Nola antolatzen da ikastetxe bat sare moduan? Ikasleekiko harremanak, sare-logikatik egiten ditugu?

**h.** Sareak jabe egin nahi du sareko puntu bakoitza (ahalmena eman nahi dio puntu bakoitzari), eta horrek erakunde-mota askoz likidoagoa sortzen du, kapaz dena moldakorragoa izateko, egoera eta pertsona bakoitzaren ezaugarri eta berezita-sunetara egokitu ahal izateko. Sareak ez du gatazka kanporatzen, baizik eta interpelazio-iturri bihurtzen du; ez du lehiakortasuna kanporatzen, baizik eta disfuntzionaltasunak depuratzeko aukera bihurtzen du; baina, bestea ezereztu nahi duen etsaitasuna bai, kanporatu egiten du; eta, zentzu horretan, sarea lankidetzako lehiakortasunaren aldekoa da: aurkaria baliagarria da, zutaz duen informazio garrantzitsua seguraski beste inork ezingo dizulako eman. Hain zaila da aurkaririk ez edukitzea, ezen onena baita

enriquecerá con las preguntas, aportaciones -sinergias- con que el otro me interpele. Pero para eso se necesita un ambiente en el que predomina una libertad que permite la humildad: el temor apaga la sinergia.

**g.** La Iglesia premoderna se organizó sobre todo a través de círculos concéntricos de parroquias. Después, en la modernidad actuó a través de corporaciones católicas buscando hacer un mundo cristiano con sus propias instituciones. Durante el postmodernismo el apostolado se encauzó a través de nuevos movimientos a la vez que los nuevos movimientos sociales se expandían. ¿A qué nos llevará en la Iglesia la lógica de redes? ¿Cómo se organiza un colegio en redes? ¿Nos relacionamos con los alumnos desde la lógica de redes?

**h.** La red busca empoderar cada punto de la red y eso crea un tipo de organización mucho más líquida, capaz de ser más versátil para adaptarse a las singularidades y peculiaridades de cada situación, de cada persona. La red no expulsa el conflicto sino que lo convierte en fuente de interpelación; no expulsa la competitividad sino que la convierte en oportunidad para la depuración de disfuncionalidades; pero sí expulsa la enemistad que busca destruir al otro y en ese sentido la red opta por una competencia cooperativa en la que el adversario es útil porque tiene una importante noticia sobre ti que raramente otro te va a dar. Es tan difícil no tener adversarios que lo mejor es al menos escogerlos de buena calidad.

**i.** La red no se divide en dos fácilmente. En general, las relaciones ya no son tan duales como antes sino que son más poligonales: se cambian las alianzas, se

kalitate onekoak aukeratzea, behintzat.

**i.** Sarea ez da erraz bitan zatitzen. Orokorrean, harremanak ez dira lehen bezain dualak; orain, poligonalagoak dira: aldatu egiten dira aliantzak, era ezberdinean konbinatzen dira loturak eta solaskideak, gurutzatu egiten dira pertenentziak. Gero eta zaharkituago daude eskema dualistak dituzten antolatzeko moduak: ezkerra-eskuina, goian-behean, barruan-kanpoan, hurbil-urrun, laguna-etsaia, sinestuna-sinesgabea, ateoa-teista, etab. Planeta osoan, lankidetza-moduak gero eta konplexuagoak dira, geometria aldakorra hartzen dute.

Geure erakundeen kanpoko eta barruko harremanek dualismoa murrizten joan behar dute. Baliteke, batzuentzat, garai berri hauetan gauzak hain "argi" ez egotea, gauzei buruz dugun iritzia esaldi laburrekin ematea hain erraza ez izatea; egia da konplikatu egiten dela mundua ulertzea, baina, bestetik, horrela, gainditu ahal dugu bloke- eta dualismo-logika, gure pentsatzeko eta lankidetzan aritzeko modua hainbeste lastratu duena.

**j.** Sarean lotutako mundu batean, zaila

combinan de formas distintas los enlaces e interlocutores, se cruzan las pertenencias. Cada vez están más obsoletas las formas de organizarnos que recurren a esquemas dualistas: izquierda-derecha, arriba-abajo, dentro-fuera, cerca-lejos, amigo-enemigo, creyente-increyente, ateo-teísta, etc. Las formas de cooperación en todo el planeta se hacen más complejas, toman una geometría cambiante.

Nuestras propias organizaciones tienen que establecer formas de relacionarse menos duales con el exterior y en el interior. Puede que para algunos las cosas estén menos "claras" en nuestra nueva época, que ya no sea tan fácil enjuiciar las cosas con frases cortas; es cierto que se complica entender el mundo, pero por otra parte permite superar la lógica de bloques y dualismos que tanto han lastrado nuestra forma de pensar y colaborar.

**j.** En un mundo en red es difícil pensar en un dualismo capaz de mantener una frontera alrededor de nuestras organizaciones. Cada vez es más difícil sostener un dentro-fuera o nuestro-otros. Es decir, que se hace improbable





da pentsatzea dualismoak gure erakundeen inguruko hesi bati eutsi ahalko dionik. Gero eta zailagoa da barruan-kanpoan edo gurea-besteak eskemei eustea. Hau da, oso zaila dela norbaitek munduarekin harremanak izatea erakunde bakar baten barrutik. Lehenago, dualismoak ezartzen zituen desberdintasunak hain ziren elkarren aurkakoak, ezen pertsona bat erakunde baten barruan baitzegoen, eta erakunde horretatik bizi baitzuen mundu osoa.

Gaur egun, pertsonak pertenentzia-erreferentzia anitzak ditu, eta baliozko iturri ezberdinak aurkitzen ditu. Pertsonak eragin oso handiak jasotzen ditu pertenentziako toki ezberdinetatik, eta elkarren aurkakoak izan daitezkeen arren, indibiduoak azkenean sinergiak aurkituko ditu. Seguraski, jada ezin dugu pentsatu indibiduoaren inguruko mundu zentrokide batean, sarean lotutako mundu batean baizik: horrek esan nahi du biderkatu egin behar direla jendearengana heltzeko moduak.

**k.** Sareak askatasun eta potentzia handiagoak ahalbidetzen dizkigu. Askatu egiten gaitu zaharkitutako erakunde hierarkikoek sortzen zizkiguten muga-arazoetatik. Hala ere, lotune bakoitzean subjektu ekintzaile baten beharra dago, trebetasun sozialak dituena, komunikaziorako eta lankidetzarako prest, mundu ezberdinen artean zubiak sortzeko gauza, luzerako begiradarekin prozesu geldoetan, taldeka lan egiteko eta harreman sakonak izateko kapaza, begirada konplexuarekin, eta besteen onena antolatzeko eta sustatzeko gauza dena.

Laburbilduz, parte-hartzeak garapen pertsonal eta sozialeko beste paradigma bat behar du; subjektu pertsonal eta sozial jakin bat behar du. Ahalegin handia

que se pueda sujetar que alguien se relacione con el mundo desde dentro de una única organización. Antes, el propio dualismo marcaba diferencias tan tajantemente opuestas que, una persona estaba dentro de una organización y desde esa organización vivía todo el mundo.

Hoy, no es pensable que alguien tenga una única referencia de pertenencia sino que encuentra distintas fuentes de valor. La persona recibe influencias muy fuertes por varios lugares de pertenencia que pueden ser contradictorios entre sí pero entre los que el individuo acabará encontrando sinergias. Posiblemente ya no se puede pensar en un mundo concéntrico alrededor del individuo sino en un mundo en red: eso significa que hay que multiplicar las formas de llegar a la gente.

**k.** La red nos permite mucha más libertad y potencia. Nos libera de problemas a que nos limitaban las viejas organizaciones jerárquicas. Ahora bien, requieren de que en cada nudo haya un sujeto emprendedor, con habilidades sociales, dispuesto a la comunicación y la cooperación, capaz de hacer puentes





inbertitu behar dugu subjektu horren prestakuntzan -berekin prestakuntza /jarduera dakarten jarduteko proiektuen bidez- eta komunitatearen arkitekturan.

Berrikuntza programa sakon eta zabala irekitzen da, baina, txosten honi dagokion denbora agortuta, ez naiz orain gauza sentitzen erreforma-plan bat sistematizatzeko, zeren eta horrek eskatzen baitu beste gobernu-erregimen bat, ezagutzarako beste politika bat, sareetarako eta eragin publikorako beste politika bat, etab. Agian, galdera-aldian, gai operatiboren batez eztabaidatu ahal dugu.

Baina, amaitu aurretik, azpimarratu nahi nuke erakundeetan parte hartzea -informatzeko, eztabaidatzeko edo erabakitzeko organoetan- berradiskidetutako soziabilitate baten emaitza izan beharko litzatekeela, hor posible baita parte-hartze adeitsua. Adiskidetasuna adostasunaren aurretik doa; adostasunak adiskidetasunaren azpiegituraren gainean lortzen dira.

Goizaldeko bostak dira, eta dutxara eta aireportura joan behar dut; beraz, Juanan Amunategui maitea, ohar hauek bidaltzen dizkizut, lehenengo orduan jendea-

entre distintos mundos, con mirada larga para los procesos lentos, capaz de trabajar en equipos y de relacionarse en profundidad, con una mirada compleja y que sepa organizar y promover lo mejor de los demás.

En síntesis, la participación requiere otro paradigma de desarrollo personal y social; requiere un tipo de sujeto personal y social determinado. Debemos invertir muchos esfuerzos en la formación de ese sujeto -a través de proyectos de acción que impliquen formación/acción- y en la arquitectura de la comunidad.

Se abre un programa tan profundo y amplio de reformas que me veo incapaz ahora, ya sin tiempo del que abusar en esta ponencia, se sistematizar un plan de reforma porque implica otro régimen de gobierno, otra política de conocimiento, otra política de redes y de incidencia pública, etc. Podemos quizás deliberar algunas cuestiones operativas en el turno de preguntas.

Sí quisiera insistir antes de terminar que la participación institucional -en órganos de información, deliberación o de decisión- debería ser el resultado de una sociabilidad reconciliada donde la



rentzako fotokopiak egingo dituzulakoan. Honela amaitzen dut nire hitzaldia idazten, eta lau edo bost ordu barru zuen aurrean, Donostian, espero dut aurkeztea. Baina, baliteke, topaketa guztiak diren gertakizunaren barruan, espero ez genuena edo aurreikusten ez genuena gertatzea, eta denon artean beste norabide bat hartzea. Baliteke, gaur eguerdian, hitzaldia amaitzen denerako, beste puntu batzuetara heltzea. Liluragarria litzateke. Dena dela, hau da lehenengo gogoetarako aurreikusita daukadan testua. Poztu egingo nintzateke, partekatzeak suposatzen duen bigarren bueltan, harago helduko bagina. Ziur nago harago joango garela, eta hori Topakiren logikari esker izango da.

participación cordial ya es posible. La concordia precede al consenso; los consensos requieren la infraestructura de la concordia.

Son las cinco de la mañana y tengo que irme ya a la ducha y al aeropuerto, así que, querido Juanan Amunategui, te envío estas notas con la esperanza de que a primera hora hagas fotocopias para la gente. Termino de escribir aquí mi intervención tal como espero exponerla dentro de cuatro o cinco horas en Donosti. Pero puede que en el curso del acontecimiento que es todo encuentro, surja lo inesperado y lo imprevisible haya ocurrido y hayamos encontrado juntos otro rumbo para las cosas. Puede que cuando termine la conferencia este próximo mediodía hayamos llegado a otros puntos. Es lo maravilloso En todo caso, este es el texto previsto de la primera reflexión. Ojalá que en la segunda vuelta que supone compartirlo, hayamos llegado más allá. Estoy seguro que iremos más allá y será gracias a la lógica del Topaki.

## BILDUMA HONEN BESTE ALE BATZUK / OTROS NÚMEROS DE LA COLECCIÓN

1. Printzipioak eta gakoak gizarte-bazterketaren aurreko politika sozialei buruz
   Principios y claves sobre políticas sociales antes la exclusión social
   Cáritas Bizkaia

2. Alkarte sarearen garrantzia
   Valor del tejido asociativo
   Juan Mª Aburto

3. Gizarte-ekintzan parte hartzea
   La participación en la Acción Social
   Fernando Vidal Fernández

## AURKI / EN PREPARACIÓN

4. Nola zaindu bizitzaren amaieran?
   ¿Cómo cuidar al final de la vida?
   Jacinto Bátiz



Cáritas Bizkaia

Ribera 8 • 48005 Bilbao
Tel. 94 402 00 99
Fax 94 402 00 98
caritasbi@caritasbi.org
www.caritasbi.org